

# ARRASATE

## PRESS

Arrasate 1990eko Martxoak 16, 56. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean


**A. AGIRREAZALDEGI:**  
"Euskaldunak  
errespeto handia dio  
heriotzari"



Dolores eta Asun

**Etxez-etxeko  
Laguntza zerbitzua**

Joseba



**OKIENDO  
KIROLAK**

**Ezagutu  
Udaberri-Udako  
moda**





**ARRASATE TELEBISTA**

Frogatan bada ere, honez gero hasi gara emititzen. Hilabetez edo, horixe egingo dugu, frogatan emititu, Arrasateko etxe guztietan seinalea ondo hartzen dela jakin arte. Hasieran albiste saioak bakarrik emango ditugu eta, asteak aurrera joan ahala, programazioa osatuz joango gara.

Badakizu non aurkitu

## **ZURE TELEBISTAREN 23. KANALEAN, UHFen**

**Oharra: Monokanaldun antena duzuenok 23 kanaleko anplifikadorea jarri beharko diozue, ATBren seinalea jaso ahal izateko. Badaezpada ere, kontsulta ezazue zuen antena jartzaillearekin.**



# ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

## Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)  
Azoka kalea 1,  
20.500 ARRASATE. Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala

**Zuzendaria:** Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:** Jon Andueza  
Bego Zubia

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
Josune Biteri  
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:** Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:** Jose Felix Diaz de  
Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:** Josemari Velez de  
Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele  
Zuazubiskar, Patxi Montero,  
Juan Martin Elexpuru, Eukeni  
Olabarieta, Arantxa Lizaso, Gerardo  
Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus  
Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo  
Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea,  
Joseba Vallés, Karmelo Urizarren,  
Iñaki Aranburu, Hankamotz,  
Maite Toledo, Atalatakoan.

**Inprimategia:** Gertu Koop. E.

**Banaketa arduraduna:**  
J. L. Arejolaleiba

**Copyright:** ARRASATE PRESS  
**Tirada:** 6.100 ale

**Lege-Gordailua:** 1124/88

**ISSN:** 0214-4654

**Frankeo kontzertatua:** 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain har-  
tzen aldizkarian adierazitako esaneren eta eri-  
tzien erantzunik.



## Hilobiak

Aldaytik aldatzera omen doaze-  
larik, kanposantu berriaren gaineko  
zurumuruak sortzen ari dira non-  
nahi. Betiko atsedeen-lekua non eta  
noiz kokatuko den eta nolakoa izan-  
go dugun, arrasatearrok egiten ari  
garen galderak dira. Jeneralean,  
aitortzen duguna baino errotuagoa  
aurkitzen da gugan, gure gorpuekin  
egingo dutenaren ardura. Alderan-  
tiziko komentarioak egin ditzagun  
arren.

George Brassensek, berarengan  
hain zorrotz ageri zen umoreaz, bere  
hilkutxa egiteko erabiliko zen pinua  
jaioa izango ote zen galdetzen zuen  
bere kanta ospetsu batean. Bestalde,  
erruz entzun ditzakegu hil ondoren  
euren hilarrietan esaldi borobilik  
idatzita ikusi nahi izango luketen  
pertsoneien eritziak. Nola edo hala,  
den-denok nahi dugu luzatu, bizi  
izan garen artean landuriko irudia-  
ren itzala. Eta horrela inoiz pentsatu  
ez duena, barka nazala baina sal-  
buespen bitxitzat hartu behar dut.

Dena den, gauza bat da noizean  
behin horren gisako pentsakizun gris

ilunetan aritzea eta beste bat kezka  
horren gainean mundu itzelik jaso-  
tzea. Heriotzaren kultura dei gene-  
zakeen mugimendu ulergaitzaren  
inguruan erokeria galantak egiten ari  
dira gure egunotan, mendeetako  
hastapenetatik egin direnen antzera.  
Nabarmenkeriaren asmoa ez da  
bakarrik gure gizarte honen nolako-  
tasuna; historiaren aro guztietan aur-  
ki dezakegu heriotzaren bidez bes-  
teengandik gailentzeko nahia.

Zer esan daiteke, bere hilobia  
diseinatzen eta eraikitzen duen jen-  
deaz? Nola klasifikatu, faraoi berria  
bailitzan bere kripta azken xehetasu-  
netaraino eratzen duen gizakia?

Panteoi ikusgarri horietako baten  
aurrean egoten naizenean gogoeta  
berdinak hartzen du leku nigan:  
hemen datzanak, bizi zen artean bere  
kideengandik bereiztu zuen distan-  
tzia hotz berbera eraman nahi izan  
zuen hilobira.

Kanposantuetako nabarmenke-  
riaren inguruan ez da lorarik soma-  
tzen.

*Josemari Velez de Mendizabal*


*inpresio ona*



inprimategi eta  
autoedizio  
zerbitzuak

Ozaeta 1, Tfnoa: 76 27 41 BERGARA





**gili gili**

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

**GIROA  
AROTZAK**

Iturrioz 14, ARRASATE

**HIRE**

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

**MARENAZA**  
Altzariak  
Diseinua  
Apainketa

Bizkai 1, Tfnoa: 79 08 07  
ARETXABALETA

**MARTINEZ**  
**aroztegia**  
Sukaldetan  
neurri guztietako  
altzariak

Araba Etorbidea 13,  
Tfnoak: 79 22 81/ 79 18 41

**PAZI-OLA SA**

Zaldizpe kalea 2,  
Tfnoa 79 29 94  
ARRASATE

**Ingurugunea zaindu dezagun**

Gu Almen ikastetxeko lagun talde bat gaituzue; natur astea egiten ari gara zenbait ekintza burutuz. Gure agurrik beroena emateaz gain, eskutitz honek beste helburu bat du: aldizkari honen irakurleei natura zain dezatela eskatzea.

Dakizuenez, gure herriek, baita mendiek ere, zikinkeriarik ez dute faltan. Ikusi besterik ez dago mendira buelta bat ematera jaurtitzen dugun zikinkeria (batzuk behintzat) zenbateterainakoa den. Paisaia polita zikindurik ikustea ez zaigu inori gustatzen, ezta? Beraz, badakigu zer egin, gure mendiak garbi gorde!

Kalean ere egoera bera aurkitzen dugu. Edozein txoko ikustatz gero, kontura gaitezke herriari egiten diogun kaltea norainokoa den.

Gure ingurunea hobeki zainduko dugun itxaropenarekin, agurtzen zaituztegu.

*Almeneko Ikasleak*

**Argentinatik Arrasatera**

Nire adiskide ona agur.

Nik nahi nuke bihotzez zu Joxe eta Arrasate Press ateratzen duzuenok ondo egotea bai osasunez eta bai ondasunez. Ni Xabier Egidazu naiz eta aitan aldetik Arrasatekoa; nire aita Udala auzokoa zen.

Andoni Egidazu eta nire ama Elorri-xokua (Bizkaia). Nire anai arrebak Arrasaten jaio ziren baina ni ez, ni Elgetan jaio nitzen. 1936ko guda etorri zelako. Hemen Argentinan Krisialdi dago gogorra. baiño osasuna ondo dago eta bagoaz aurrera ahal den bezala.

Arrasate Presseren 43. zenbakia hartu dot gaur, bai pozik, eta pentsau dot zuri eskutitz hau bialtzia. Oso asko gustatzen zait Arrasate Press eta niretzat pixkat zaila da euskera batua, baina indarra dago nire inpiritxuan eta aitzen dot ondo. Bai, nere bihotza dardaraz egoten da Arrasate Press irakurtzen dotenean. Ba, nire senideak ibilitako euren pausoak ikusten ditut nire bihotzian. Bai, maite dot Arrasate Press, maite dot Arrasate. Maite dot Euskadi. Argentinatik bialtzen dotzuet Arrasateko anai maiteei. Gora Arrasate! Gora Euskadi askatuta!

Hemen Argentinan Buenos Aires-en zorionez *Laurak bat* batzokia daukogu. 100 urtetik gora dauzka. Hemen daukagun Euskal Kultur Taldea (Euzketxe) oso

ona da, euskararen alde dago eta. 100 liburutik gora dauzka. Dauka "Salón de Actos" zinema eta teatro eta hitzaldiak egiteko toki-ona. Bai, gauza haundia da Laurak Bat eta Euzkadi Kultur Etxea.

Ez dakit aitzen dozun nire ikastola gabeko euskera. Nahi dot bihotzez baietz aitxia.

Irakurri dot zure lana "usteak uste..." gogorra da guretzat Arrasaten ere lapurak daudela eta Arrasate Press lapurtu dutela. Ein gogor eta segi beti aurrera, mesedez guk euskaldunok Arrasate Press nahi dogu eta.

Eskerrik asko Joxe Aranzabal Jauna Arrasate Press bialtzeagatik urrutiko Argentinan bizi den euskaldun honi. Bai Iparragirren bertso hau gogoratzen dot "Gazte gaztetatikan, heritik kanpora extrangeri aldean pasau dot denpora, baiña nere bihotzak diño "zoaz Euskal Herrira".


Besarkatzen zaituet Arrasate Press ateratzen duzuenok. Agur.

*Egidazutar Xabier*

**Arrasateko Ikastolak**

Joan den asteko Arrasate Press-en kaleratu zenuten San Frantzisko Xabier ikastolaren publizitatean okertxo bat isuri zelakoan (goikaldean bere izena barik, "Arrasate ikastola" agertzen bait zen), honako oharxoaren bidez argitu eta bergogoratu nahiko genuke Arrasate herriak zorte handia duela hezkuntza hobe eta euskaldunago baten xedean hiru ikastola ari bait gara lanean: Umezaintza, San Frantzisko Xabier eta San Viator ikastola. Eskerrak argitasun hau kaleratzearren.

*Arrasateko beste ikastolek*





# Noiz egin diozu azken errebisioa autoari?



**Jesus Blazquez**  
(langilea)

Orain dela pare bat hilabete. Bost mila kilometroka egiten diot errebisioa, nahiko zaintzen dut.




**Arantxa Salvador**  
(langilea)

Autoa berria da, eta bost mila kilometroka errebisiora eramaten dut, oraingoz zaintzea merezi du.



**Gema Zubizarreta**  
(langilea)

Oporretan joan baino lehen egin genion. Apurtxo bat zaintzen dugu kotxea, bost mila kilometroka eramaten dugu.




**Ignacio Garmendia**  
(jubilatua)

Egia esan, automobila gutxi erabiltzen dut eta azken errebisioa orain dela pare bat urte egingo nion.

# LENIZ

## AUTO ESKOLA



**LASTER: AUTOBUSA ETA KAMIOIA**

**ARRASATE - ESKORLATZA**

*Jesus Giraldo*

## LISERI-APARATUA

X Izpiak, endoskopia

(Lagun Aro, Gipuzkoako Foru Aldundia, Prebisa, Adeslas (Muface) eta partikularrak

Kontsultak arratsaldeetan

Loramendi 6, 2. B (Eguzki dorrea) Tfnoa: 79 04 14 Arrasate

## Memesa

**79 42 22**

# I R A T I

**Ferrerias kalea**  
**Tfnoa: 79 71 80**



**BEHARREZKO TELEFONOAK**



**ERITETXEA**

Arrasateko Eskualde-Ospitalea .....	79 53 00
Igualatorioa .....	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak) .....	79 39 00
(emakumeak) .....	79 44 11
Buru osasunerako zentrua .....	79 90 11

**GURUTZE GORRIA**

Bergara .....	76 55 76
---------------	----------

**DYA**

Antzuola .....	76 62 91
----------------	----------

**ANBULATORIOAK**

Arrasate .....	79 13 57
.....	79 97 22
Oñati .....	78 08 52
Eskoriatza .....	79 88 96
Aretxabaleta .....	79 74 58
Aramaio .....	(945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**

Gipuzkoako ambulantiak .....	45 87 44
------------------------------	----------

**UDALTZAINGOA**

Oñati .....	78 04 11
Bergara .....	76 14 69
Arrasate .....	79 14 39
Aretxabaleta .....	79 10 52
Eskoriatza .....	79 03 22

**ERTZANTZA**

Arrasate .....	79 71 99
----------------	----------

**SUHILTZAILEAK**

Udal taldea .....	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua .....	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .....	78 28 00

**MATXURAK**

Urak (udal zerbitzua) .....	79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) .....	79 05 81
Gasa .....	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

**GARRAIOAK**

Taxiak .....	79 12 22
P.E.S.A. ....	79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**

Iturbide Egoitza .....	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza .....	79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte .....	79 87 77
--------------------------------------------------------------	----------

**16 OSTIRALA**

- Zinea: Alai: "Acoso a una mujer". 7 eta 9,30etan.
- Novedades: "Super agente K-9". 10,30etan.
- Josemari Velez de Mendizabalen "Sixties" liburu berriaren aurkezpena. Arrasaldeko 7etan, Monterron kultur etxean.
- Bertso afaria. AED elkarteak antolatuta. Gaueko 9,30etan. AED elkarteak.
- Goardiako farmazia: Irizar. Erguin.

**17 LARUNBATA**

- Zinea: Alai: "Noches de Harlem". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Super agente K-9". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Kontzertua: Nertha taldearen eskutik. Amaia antzokian, gaueko 10,30etan.
- Goardiako farmazia: L. Amezua. Sta. Marina

**18 IGANDEA**

- Zinea: Alai: "Noches de Harlem". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Novedades: "Una pandilla de lunáticos". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Goardiako farmazia: A. Ruiz. Madalena.

**19 ASTELEHENA**

- Zinea: Alai: "Al filo del abismo". 5, 7,30 eta 10,30etan.
- Goardiako farmazia: A. M. Morales. San Andres.

**20 ASTEARTEA**

- Zinea: Alai: "Al filo del abismo". 7 eta 9,30etan.
- Hitzaldia: "Ongitasun pertsonala eta komunitatea kontsumo kulturaren barnean". Hitzaria, Idoia Romo psikologoa. Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan, arrasaldeko 4,30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga. Ferrerias.

**21 ASTEAZKENA**

- Goardiako farmazia: S. Español. Iturriotz.

**22 OSTEGUNA**

- Kontzertua: Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren emanaldia. Arrasaldeko 8etan, Amaia antzokian.
- Goardiako farmazia: M. Corcuera. Musakola

**IKASTAROAK**

- **Zanko ikastaroa.** Aizpurutxo taldearen eskutik. 14 urtetik gorakoentzat. Egunean bi ordu, arrasalde. Martxoaren 31tik apirilaren 7ra. Izen emateak Arrasateko Gazte Zerbitzuan.
- **Negu tekniken ikastaroa.** Martxoaren 25, 26, 31, eta apirilaren 1ean. Besaide Mendizale Elkarteak antolatuta. Plaza mugatuak.
- **Fandango, jota eta arinarin** ikastaroa. 12-14 urte bitarteko gazteei zuzendua. Martxoaren 22 hasi eta hilabetez. Informazioa Udal Gazte Zerbitzuan.
- **Open Access II.** Arrasateko IMIn. Martxoaren 26tik 30era bitartean. Informazioa Arrasateko IMIn.


**ERAKUSKETAK**

- **Estibalitz Ormaetxea** pintore arrasatearrak Donostiako KAI Galerian erakusten du. Martxoaren 22 arte. Juan de Bilbao kalean.
- **Daniel Laskurain** pintore bergararraren lanak izango ditugu ikusgai hil honetan zehar Oñatiko Etxe Aundi aretoan.

**LEHIAKETAK**

- **Deba Garaiko Eskola arteko Abesbatzen III. topaketa.** Eskolaurre eta OHoko ikasleek parte har dezakete. Abesbatza bakoitzak bi abesti aurkeztu beharko ditu. Izen emateak, Martxoaren 26a baino lehen.






# PARKE ETA LORATEGIEN SORKUNTZA

## LORAZAINTZAKO MANTENIMENDUA ORO HAR

## LANDARE-BIRSORKUNTZA HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



“Arrasate Industrian murgilduriko herria da, baina zerbitzu aldetik gabezia ikaragarria du. Esan beharra dugu marginala izatera ere hel daiteekela. Harrigarria da gure enpresa, kooperatiba, entitate eta ikerketa-zentruetan sortzen den dinamika guztiak zerbitzuetara ez isladatzea; ez dago apenas ezer eta.

Batez ere hiru dira Arrasatek dituen gabeziak: etxebizitza, garraioak, eta hosteleriaren inguruko zerbitzu gehienak”.

(Ignacio Lakunza EPPko zuzendariak, “El Correo Español” en)

“Lantokira etorri ziren: atxilotu eta Intxaurren-dora eraman ninduten, katxeatu eta galdeketak egin; abokatuarekin egon eta jarraian Antiguora eraman ninduten, gela txiki eta hotzera.

8,30etan iratzartu eta 9etan A Coruña-ra. Valladolid-en geratu ginen goardia zibilek jateko, eta pare bat ordu eman nituen zelda batean. A Coruña-n Togado Epaille militarra eraman ninduten; luzaroan gelditu ginen han. Togado epaialearekin eta ofiziozko abokatuarekin egon (azken honekin oso haserre nago, ixil ixilik geratu zen eta, bertan ez balego moduan); eskerrak hemengo kolektiboko mutil eta neska bat ikusi nituenari, apur bat animatzeko.

Gero, beno; Atocha-ko koartel Militarrea ekarri ninduten, eta orain hemen nago, Alcalá-ra noiz eramango nauten zain. Hori bai, moral haundiaz!”

(Iñigo Irasuegi, arrasatear preso insumisoak Atocha-ko koartelean)


### Zein izango da osasun zerbitzuen etorkizuna Arrasaten?

Aste honetan, Arrasateko Eskualde Ospitalearen etorkizuna zein izango den argitu dugu. Ospitale berria egiteko gaur egungo anbulategiaren eraikuntza eta ospitale zaharren eraikuntza lotu egingo ditugu eta horrez gain, ospitale zaharra anpliatu egingo dugu. Honek seiehun zazpiehun milioiko inbertsioa suposatuko du. Inbertsio honekin Deba Garaia ehun eta bost ohez hornituko dugu, ospitale general batek behar duen ekipamendu eta teknologia aurreratuenarekin.

Ospitale honek kirurgia, oftalmologia, otorrinolaringologia, barne medikuntza, pediatria eta ginekologi-obstetrizia zerbitzuak izango ditu. Azken finean, ospitale modernu batek behar dituen zerbitzu guztiak izango ditu.

Horrez gain, Arrasatek osasun zentruak izango ditu. Oraindik ez dakigu bat ala bi izango diren. Arrasateko Udalak, Gurea zinema eskaini du osasun zentrua kokatzeko, baina zenbaiten ustetan, osasun zentruak herritarrengandik hurbilago egoteko Arrasaten bi jarri behar dira, beraz, irtenbide egokiena zein izan daitekeen aztertzen ari gara une honetan.

Jakina, guzti honetaz udal agintariekin hitz egin behar dugu, beraiek utzi beharko dizkigute osasun zentruak jartzeko lokalak eta.



Joase Manuel Freire  
Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburua

**INDUSTRIA ETA AUTOMOZIOTAKO  
LABAINGARRIAK BERE INSTALAZIO BERRIETAN**

Kataideko Industrialdea 1 eta 2  
Musakola z/g 51 postakutxa. Tfnoa: 79 46 33 /78 Faxa: 798411 ARRASATE

**AURRERATZEKO**

**SF**

**AIZKORA**

**AUTOZERBITZUA**

Maalako Errabala 7, Tfnoa: 79 15 56

**beatriz**

oinetakoak eta  
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33  
ARRASATE



## Nertha, Jazz-a eta Musika klasikoa

### Larunbatean, hirukote gipuzkoarra Amaian

Larunbat gauean, martxoak 17, gaueko 10,30etan Nertha musika taldearen emanaldia ikusi ahal izango dugu Amaia antzokian.

Nertha taldea gipuzkoarrez osatua dago; Arrasate, Bergara, eta Eibarko jendea.

Gaur egun, bost pertsonak dihardute taldearen inguruan lanean: Eli Auzmendi (27 urte, bibolin-jolea), Julio Porto (23 urte, kitarra elektrikoa eta musikagilea), Carlos Lealso lar (22 urte, kitarra klasikoa eta musikagilea), Sue Lopez (30 urte, perkusioa eta ahotsa), eta Manu Etxazarra (24 urte, baxua).

Nertha taldea "New Age" korron-



tearen barruan koka dezakegu, hau da, musika klasikoaren eta Jazz-aren arteko nahasketa. Sintetizadore eta efektu arraroekin ere esperimentu ugari egiten dituzte.

### "Nire herria"

OHOko 3. eta 4. mailatan, "Nire herria" izeneko ikastunitatea dago ikasgai. Ikastunitate honetan norberaren herria hartzen da aztergai. Hortaz, geografia, historia, artea, ekonomia, literatura eta bestelako disziplinak modu teorikoan soilik ikasi beharrean, herriaren errealitatearekin lotuta ikasten dira.

Iñigo Ramirez irakasle antzuolarra arduratuko da Arrasateri buruzko ikastunitatea egiteaz. Badirudi, maitzerako amaitu dezakeela lana, eta horrela dena prest egongo litzateke datorren ikasturtean argitaratzeko.

### Erakustaldia Etxe-Aundin

Martxoan zehar, Oñatiko Etxe-Aundi jatetxean Daniel Laskurain pintore bergararraren obrak egongo dira ikusgai.



### Emakumearen eguna

Ohizkoa den bezala, martxoaren 8an Emakume Langilearen Eguna ospatu zen.

Hori dela eta, ekitaldi ugari antolatu zituzten Arrasaten, bai Emakumeen Asanbladak eta bai Egizanek ere.

Alde batenik manifestaldiak burutu zituzten; eta bestetik hitzaldiak, antzerkia, eta baita emakumeen afaria ere.

LORAMENDI  KIROLAK

**DAGOENKO UDABERRIA DUZU  
LORAMENDIN**

**Txandalak, Bainujantziak, Tenisa  
Kirol moda**

**ESKATU KATALOGOA**

**FELIPE  
MADINA  
ZURAK**

Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

**SANIDES**

Parasitoel aurre egiteko  
Insektu narraztiak akabatzeke,  
arratoiak barne

**URTEBETEKO GARANTIA**

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81



### Udalaren ikerketak

Orain gutxi, Udalak eskaria jaso zuen Eskola Politeknikotik, etxebizitza alokatuen arazoari irtenbideak eman beharra zegoela azpimarratuz.

Udalak gaia jorratu, eta estudio sakona egitea erabaki zuen.

Ikerketa horretan, hainbat pistari eutsiko liokete. Hala nola: zenbat diren egiatan Arrasaten hutsik dauden pisuak, zergatik dauden hutsik, erabiltzen ez dituzten jabeek zergatik egiten dioten uko alokairuan emateari, etab.

Argi dago arazoa hor dagoela, eta areagotu egiten dela, itsusitu, alokairua lortu nahi dutenak gazteak direnean.

Eskola Politeknikoak Udalari egindako beste salaketa, Arrasatek garraiobide aldetik duen urritasunari zuzendua zegoen. Gure herrian trenik ez, eta autobus zerbitzua kasu askotan benetan pobrea da. Badirudi Udala prest egongo litzatekeela gai hori aztertzeko ere.

Azterlanak egin ondoren, agian konponbideak helduko lirateke; edo hori da behintzat bilatzen dena.



## Txandaka

### Arrasate 2000 urteruntz

Europar kanpaina, Kolonek Amerikak aurkitu zitueneko V. mendurrena, Olinpiada, zer, hamaika bider aipatutako 92. urte nazkagarri honek, ezinezkoak lirateken proiektuekin batera, gure gobernarien harrokeria hutsa dakarkigu.



Felix Elortondo (\*)

Leizarango Autobia, Bilboko Portua, Errepideen Plan Orokorra, Itoiz urtegia, Zabortegei kutsatuak, Abiadura Handiko Trena. Garapenaren sasoia da, ezin dugu hori ahaztu, Europarako trena martxan jarri da, eta hartu beharra dago, etorkizunik ez dago bestela.

Hau entzuteak, orain dela urte gutxi batzuk, argi barik geldituko ginatekeela, Lemoizko Zentral Nuklearra eraikitzen ez bazen, dakarkigu gogora.

Berriro ere, gezurra dute euren poltronen oinarriek.

Bitartean herritarrok gure ingurugiroa nola usteltzen eta alperrik galtzen den dakusagu, horren kontra gauza gutxi egin dezakegularik.

Eta burura etortzen zaigu, nola izango den gure Arrasateko etorkizuna: kamioiak, eskabadorak, buldozer, etab.

Guregana heldu diren zurrumurruak diotenez, Autopista-Autobia gure bailaran barrena, Arlabanetik

Maltzagara eraikitzeo asmoa dute.

Autopista honek Kurtze Txikin bihotza erdibituko luke, zabortegeia Epelen kokatu behar dutela eta Y greziar hizkiaren forma hartu behar duen trenbide hori S. Agedan kokatuko dutela, Uda-

laren inguruak zeharkatuz.

Etxezarreta desagertu egin behar dela, Skalextri handi bat izango delarik.

Amets gaizto bat izango ote? Ezin dugu sinistu ere egin Bitartean gure ibaiak gero eta kutsatuago, uraren erreserbak gero eta urriago, gure mendiak kiskalita, gure baso eta fauna arrisku bizian ikus ditzakegu. Lemoiz eta Garoña, "inbernadero" efektoa, ozono kapa eta Amazona oihaneko etengabeko desagertzea, alde batera utzi gabe. Horregatik hau dena kontutan hartu beharreko sasoia heldu zaigu, bueltarik gabeko bidean sartu gaituzte eta ezetz borobil batekin erantzungo diegu.

Lurra ez dela gizakiaren ondatsun bat eta datozkigun belaunaldiekin ezin dela jolastu.

Ez gara euren esanetara makurtuko. Eutsi gogor.

Gure lurra defenda dezagun.

(\*) Eguzki-ko partaidea

# KiDE

## Paperdenda eta jostailudenda

Erguin 5, Tfnoa: 79 25 77 ARRASATE

**LILURA** -ek  
zeure moda  
diseinatu eta sortzen  
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.  
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE





## Arrasate Musikal K.O?

### 11 milioiko aurrekontuari aurre egin ezinik

Arrasate Musikal hil ala biziko egoeran omen dago, eta laster baino lehen neurriak hartzen ez badira, pikutara joateko arriskutan legoke.

Arrasate Musikalek 11 milioi pta.ko aurrekontua du 1990erako, eta oraindik martxoan gaudenean, dagoeneko kantitate horren erdia jaso du (pasa zen urtean Udalak 4 milioi pta. aurreratu behar izan bait zizkion aurtengo presupostuaren kontura, gasturik garrantzitsuenei aurre egin ahal izateko).

Apirilean, bestalde, datorren ikasturterako matrikulaldia irekiko da, eta ordurako komeni da akademiaren geroa erabakita izatea.

Orain 895 dira Arrasate Musikalek dituen ikasleak; 11 irakasle finko eta 13 ordukako irakasle daudelarik.

Hilabete barru, edo asko jota bi, Udalak Arrasate Musikalek etorkiunean izango duen izaera erabaki

beharko du aurrerantzean arazoak zuzendu nahi badira behintzat.

Hil honen amaierarako Aitor Orobengoa eta Xabier Bengoa, Hezkuntza eta Kultura batzordeburuek Arrasate Musikalen etorkizunari buruzko txostena aurkeztuko dute ondorengo eztabaidak eta azken erabakia txosten horretan oinarrituko direlarik.

Badirudi bi soluzio posible daudela arazoarentzat.

Alde batetik, Arrasate Musikal Udal kontserbategi bihurtzea; baina itxura denez, nahiko zaila izango da hori gertatzea, kasu horretan zama guztia Udalarentzat izango zelako: funtzionamendua, langileen soldata, mantenimendua, etab.

Bestetik, Arrasate Musikalek entitate autonomo bezala jarrai dezala, Udalaren dirulaguntzak jasoko dituen akademia moduan segituz.

## Usteak uste...

Herriek merezi dituzten agintariak omen dituzte. Baina zer egin dute bergarar koitaduek joan den ostiralean Bergarako Udaletxeko Areto Nagusian entzun eta ikusita-koak merezitzeko?

Alkateak oposizioburuarenak egiten dituenari ziniko esan ziola eta, oposizioko partiduek alkateari hizkuntza gogorra erabiliz barkamena eska ziezaiola edo bestela, exijitu ziotela eta, erabaki beharreko zenbait arazo geldi egon da bizpahiru astez, azkenean ostiraleko osoko bilkura egiteko ados jarri ziren arte.

Alde biek ondo zorrozuta ekarri zituzten arma dialektikoak eta trapu zikinen boltsa. Egia esan, bigarrena dialektika zuzena baino. Horrela, alkateak ez dituela agindutakoak betetzen jakin izan genuen, EAkoak gezurtiak direla eta Bolinagak modu txarrean isilerazi zuela HBko zinegotzi bat bilera batean.

Banan banan, ia partidu guztiak onartu zuten akaso hizkuntza gogorregia erabili zutela, baina bestearen erruz, beraz, besteak lehendabizi barkamena eskatuz gero, eurak ere prest zeudela gauza bera egiteko. Baina, kia! nork eman amore lehenago? Inortxok ere ez, noski.

Bi ordu amaigabez higuindu zuten aretoa betetzen zuen ikusle-goa, eta azkenean, hurrengo puntura pasatu ziren.

"Ez dago deretxurik. Hurrengoan balde bana ur burutik behera bota behar jake denei. Lotsabako halakook!" Zioen emakume batek aretotik irtendakoan.

Joxe Aranzabal



## MIREN & ZURIÑE

*bitxien diseinua*

### BITXITEGIA

Otalora kalea 4, Tfnoa: 77 13 57  
ARETXABALETA

Bitxien konponketa  
Berezko bitxiekin sorketa  
ezarketa edo osaketa





## Arrasaten ospitale berririk ez

*700 milioiz, zentrua eta anbulategia birmoldatu*

Joan zen astelehenean Arrasaten izan genuen Jose Manuel Freire, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailburua, Osakidetzak Deba Garaiko ospitalearen inguruan hartutako erabakia azaltzeko.

Gogoratuko duzuen bezala, orain hilabete batzuk Mankomunitateak zentru berria egiteko eskaria luzatu zion Osakidetzari.

Baina itxura denez, Osakidetzak ez dago prest ospitale berria eraikitzeko. Jose Manuel Freireren hitzetan, gaur egungo zentru eta ambulategiaren birmoldaketatik etor daite-

ke Deba Garaiak osasun mailan behar duen erantzuna, eta ez zentru berraren eraikuntzatik.

Asmoa honako hau litzateke: Gaur egungo zentruari 2.000 m. karratu gehitzea, eta era berean, zentrua eta anbulategia aireko iraganbide baten bidez komunikatzea, instalazio borobila burutuz.

Anpliazio eta birmoldaketaren kostua 700 milioi ptakoa izango da, eta asmoa, obrak 1992rako bukatzea. Era berean, Gurea zinemako solairuan koka daiteke lehen mailako osasun zentrua.

### Ahizke-CIMen bilera

Datorren asteazkenean, martxoak 1, arratsaldeko 6,30etan bilera berezia egingo da Ahizke-CIMen egoitzan. Bilera horretan, ekainean egingo den Cambridgeko P.E.T. (Preliminary English Test) azterketari buruz interesa duten guztiei informazioa emateko.

### San Viatorreko batzarra

Datorren asteartean, martxoak 20, arratsaldeko 6,30etan egingo da San Viator Ikastolan Bazkideen Batzar Arrunta.

### Talde antimilitaristak

Talde antimilitaristek konzentrazioa antolatu zuten igandean, Alcalako espetxe militarren aurrean, eta Arrasatetik ere autobus bat hurbildu zen bertara. Alcalako espetxean hiru insumiso daude atxilotuta; eta horietariko bat arrasatearra dugu, Iñigo Irasuegi hain zuzen ere. Gogoratu Iñigo orain bi aste eraman zuela goardia zibilak, eta ordutik makina bat ekintza burutu direla haren askatasunaren alde.

### Jaiotzak

Iturbe Zubillaga, **Beñat**. Martxoaren 3an  
Zubia Igartua, **Iñaki**. 6an  
Sanchez Martin, **Amaia**. 6an  
Ugalde Murgoitio **Itxaso**. 6an  
Aranzabal Isasa, **Leire**. 6an.  
Cantera Aparicio, **Beatriz**. 7an.



## Ginekologi kontsulta

F. Cristobal doktorea

Jose M<sup>a</sup> Gomez doktorea

A. Otalora doktorea

A. Estomba doktorea

M<sup>a</sup> Jose Ruiz doktorea

Ana Zubizarreta doktorea: Nutrizioa, argaltzea, zelulitisa...

Jose Luis Higura: Kirurgia, basektomia...

*Antisortzapen-miaketa, minbiziaren diagnostiko goiztiarra, bular patologia, zitologia, menopausia, haurdunaldiaren kontrola, antzutasuna, sexologia, etab.*

Lagun-Aro, Asisa, Previsa, Capisa, Diputazio eta partikularrak.

Eskatu ordua, astelehenetik ostiralera 9,30etatik 12,30etara eta 3etatik 7,15etara  
telefono honetan: 79 20 18

Zerkaosteta 17, behea

ARRASATE



# SASKI-NASKI

lehiaketa

Asteroko sariak



**Aranzabal Akobe**  
elektrogailuak

DISCMAN  
SONY D-20




**MELIA BIDAIAK**

**Etxe Aundi jatetxea**



AFARI BAT  
BI LAGUNENTZAT



**OKENDO  
KIROLAK**

ZAPATILAK



**Ikatz**

argazki etxea



ARGAZKI MAKINA  
AUTOMATIKOA

Hileko sari handia



**80.000 pta. ko kirol  
jantziak, Okendo  
Kirolak-ek emanak**

Aste honetan hasi eta urtarilera arte astero-astero SASKI-NASKI Lehiaketa parte hartzeko aukera izango duzu. Astero goian aipatzen diren lau opariak banatuko ditugu. Eta, gainera, hilean behin SARI HANDI BAT. Parte hartzeko asteko galderari erantzun eta txarteltxo Arrasate Pressera (Azoka kalea 1.) bidali. Zorte on!

**Galdera:**

**ZEIN EGUNETAN EMITITZEN DU ARRASATE TELEBISTAK ?**

**Erantzuna:** .....

**Izen-deiturak:** .....

**Helbidea:** ..... **Herria:** ..... **Tlfnoa:** .....





## Elbarrituentzako garraio berria

### *Furgoneta egokitua ipiniko zaie*

Inguruetako elbarritu gehienek, Bergarako *Aspacen* egiten dute lan. Egunero joaten dira bertara, eta imaginatu nolako arazoak dituzten gurgil-aulkiekin autobusera igotzeko.

Guztira, hogeiren bat dira inguruetan joanetorrietarako arazo larriak dituzten elbarrituak. Egoeraren aurrean, Deba Garaiko Mankomunitateak eskaria jaso zuen, jende horrentzako garraiobidea egokitu beharra zegoela aipatuz.

Autobusa garestiegia litzatekeela (38 bat milioi) eta, hamabosten bat

lagunentzako furgoneta egokitzea pentsatu dute.

Furgonetak 3,5 milioi balio du, eta egokitzeak 7 milioi pta; gastu hori Mankomunitatearen kontura joango litzateke. Mantenimendua eta funtzionamendua (bi pertsona) DYA-ren eskutan utziko lukete, urtero 1,5 milioiko dirulaguntzaren truk.

Zerbitzua, datorren ikasturterako has daiteke martxan; eta asteburuetan, irteerak antolatzeko erabiliko litzateke.

## J. A. Artzeren emanaldia institutuan

Jose Antonio Artze, kulturaren makina bat arlo ezberdinetan aritu izan den usurbildarra dugu.

Hasierako urratsak musikaren munduan, *Ez dok Hamairu* elkartearen partaide bezala. Geroxago literaturaren bidetara eutsi zion, poesian egindako lanak aski ezagunak direlarik.

Orain esperimentu berria murgildua dago Jose Antonio, asteazkenean institutuan ikusi genuenez. Bi orduz luzatu zen haren emanaldia. Irudiak eta musika, soinu arraroak, bere poemak irakurketa pausatua, eta beste hainbat efektuaren arteko konbinaketaz osatutako antzeslana.




## Jose Aranzabal

ELEKTROGAILUAK  
Iturriotz 15,  
Tfnoa: 791516




AKOBEREren garantia eta zerbitzu teknikoarekin



FAGOR SUKALDEEN  
HORNIDURA OSOA  
OPARIGAIK

Doctor Bañez 8, Tfnoa: 791892

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

## LARRINGAN

auto gidarien eskola

KLASE TEORIKOA  
IRAKASLEAREKIN

Garibai 3, 79 22 96 ARRASATE



# 89-90 ikasturteko unibertsital-ikasketak

## Kopuru handiena, teknika eta industriaren arloan

Unibertsitate mailako ikasketak, sei arlo ezberdinetan banatzen dira: hizkuntza, giza eta gizarte zientziak, natur zientziak, teknika eta industria, administrazio eta gestioa, eta azkenik arte eta bestelakoak.


1989-90 ikasturteari dagokionean, esan dezagun Deba Garaian guztira 1.555 ikasle matrikulatu direla unibertsitate mailako ikasketak egiteko.

Arloz-arlo aztertuta, aipatu aukeratuena teknika eta industriarena izan dugula, 470 ikaslerekin (%30,2a). Horren ostean administrazio eta gestioa, 413kin (%26,6a); giza eta gizarte zientzietan 363 (%23,3a); natur zientzietan 146 (%9,5); hizkuntza arloan 87 (%5,6a), eta bukatzeko arte eta bestelakoetan 74 ikasle (%4,8a).

Banaketa karreraz karrera eginenez, ostera, zera ikusten dugu: neska-mutil kopuru handiena Injinerutza tekniko-industrialari ari dela ikasten, 311 ikasle hain zuzen ere; 207 ikasketa enpresarialak egiten, 206 ekonomikoak, eta zerrendan laugarrena, 110 ikasle zuzenbide ikasketak burutzen.

Arrasateko ikasleen datuak apartxe begiratu, argi ikusten da hemen

89-90 IKASTURTEKO UNIBERTSITAL-IKASKETAK DEBA GARAIAIN ETA ARRASATEN



ere Deba Garaian ematen diren gustu eta proportzio berdinak ematen direla.

Guztira 665 arrasatear ditugu gaur egun unibertsitate ezberdinetan matrikulatuta.

Gaske horietariko 133k Injineru-

tza tekniko-industrialari ikasten dihardute; 93 ikasketa Enpresarialak burutzen, 91 ekonomika, 45 neska-mutil zuzenbide karreraren, 39 Majisteritzan, 28 Filologian, eta zazpigarren aukera bezala, Kazetaritza ikasketak egiten beste 26.

# FAGOR



**TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA**

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN**

**ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**

**VE ECUADOR**


Kontzesifno 2,  
Tfnua: 79 14 06  
ARRASATE

**LIBURU  
DENDA**

Erdiko Kale 23, Tfnua: 79 20 47  
ARRASATE

**NAROKI**





◀ Musakolako Eskola Publikotik bidali digute argazki hau, berri ere argazkigintzako ikastaroa hasi dela esanez. Ikus dezakezuen argazki hau beraiek atera eta errebelatu dute zientzietako laborategian duten argazki laborategian. Ilusio handiz ari dira argazkiak prozesatzen eta nork daki! agian erakusketaren bat ere egingo dute Monterronen.

▲ Arrasateko lau jubilatutako lagunek, dagoeneko *Ekintza* aldizkariaren 4.en zenbakia kaleratu dute. Badirudi gogor ari direla lanean guri kompetentzia egiten, eta etorkizunean ere emaitza geroz eta txukunagoa kaleratzeko asmotan omen

Dagoeneko, liburudendetan salgai aurkituko duzue **Josemari Velez de Mendizabalen *Sixties*** liburua, non Josemarik hirurogeiko hamarkadari errebaso borobila ematen dion. Ostiral honetan bertan, Velez de Mendizabalk bere liburuaren aurkezpena egingo du Monterronen, arratsaldeko 7etan.



▲ Otsailaren 23an ireki zuten Otalora kalean *Noski* Garagardotegia (aspaldiko urteetan *Aralar* edaritegia izan dena, baina itxuraz zeharo aldatuta). Pizza-k eta plater konbinatuak emango dituzte bertan. Argazkian, garagardotegian lanean diharduten Isabel, Pedro eta Alberto.

**LASAGABASTER**

**Jantzidenda**

*Bertan izango duzu beti modako gauzarik onenen aukera zabalena*

Garibai 9, Tfnoa: 79 89 97



## izen propioak


Esti Loiti, 20, Garagartza auzoko arrasatearra, Gipuzkoako futbol selekzioan jokatzeke deitu zuten lehen aldiz joan den astean. Arrasateko emakumezko futbol ekipoko kirolaria da. Eskola Politeknikoan LH ikasketak burutu zituen, eta Fagorren behin behineko lanak burutzen ditu.

Pablo Irizar, bergararra, AX kopako Espainiako txapelketan parte hartzeko pilotu ofizial izendatu dute. Pablok, txapelketa honetan bi urtez bere kasa parte hartu du eta aurren TDM Malboro esku-deria madrildarrarekin fitxatu du.

Josemari Velez de Mendizabal, 41, Aramaion jaiotako arrasatearra, Sixtis izeneko liburua kaleratu berri du. Josemari Enpresa eta Ekonomia Zientzietan lizentziatua da eta Ucem-Cerrajeran lan egiten du. Hau duzue idazle honen zortzigarren liburua, artikulugintzan luzaro aritu da eta beste ardura-postu artean, Euskal Idazleen Elkar-tereko lehendakari izan zen, 1985etik 1989ra.



Hura ustekabea pasa zen ostegunean izan genuena! Arriatsaldeko laurak inguruan, Antzuolako Ama Errukia Ikastolako 49 neska-mutiko etorri zitzaizkigun Arrasate Pressera. Eskerrak ederto antolatu zutela euren bixita: lau txandatan etorri ziren, kurioso, eta aldez aurretik prestatutako makinatxo bat galdera egin zizkiguten. Izugarritzko martxa eman zioten erredakzioari, eta joan aurretik, benetan arduratu ere argazkian den-denak ager zitezten. Badaezpada ere kontu itzazue, baina uste dugu ez dela inor falta.



Itxura denez, astakiloak oraindik ere sobera daude gure herrian. Astelehenetan, Monterroneko parketik bueltatxo emanaz gero, astakilo horien ekintzen berri izango duzue: bankuak hautsita, zikinkeria nonahi, eta nola ez, bertan lurperatuta dauden txakurren hilobiak jo ta birrinduta.

# prest



ZENTRO PSIKO-MEDIKOA



GIDA TXARTEL ETA  
ARMA BAIMENETARAKO MIAKETAK

J. Carlos Gerra 1, 3. Tfnoa: 77 08 96 ARRASATE

ZENTRO  
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

- \* Diagnostikoa - Orientazioa
- \* Estimulazio goiztiarra
- \* Erreabilitazio funtzionala (Psikomotrizitate eta hizkun berreziera)
- \* Logopedia
- \* Laguntza terapia
- \* Mota guztietako eskola arazoak, enuresia (Ohe bustitzea), eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea 10  
ARRASATE TFNOA: 79 48 77



# Etxez-etxeko laguntza zerbitzua

## Zazpi urtez, arrasatearren bizi kalitatea hobetzen

*Asunek makinatxo bat urte eman zuen bere ama zaintzen, zahartzaroaren eraginez gaitasun fisikoak murriztuta zituen eta. Asun zahartu denean berriz, Udal zerbitzu bati eskatu behar izan dio laguntza, bera bakarrik bizi da eta. Asun ez da laguntza eskatu behar izan duen bakarra, gizarteak izan duen garapenaren ondorioz, gero eta jende gehiago aurkitzen bait da bakarrik. Lehen lagunek betetzen zituzten lanak erakundeek beren gain hartu behar izan dituzte eta Etxez-etxeko laguntza zerbitzua sortu.*



Espek, Asun eta Mariri bere laguntza eskaintzen die

### **Etxez-etxeko laguntza zerbitzua**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalei luzatutako laguntzaren bidez, orain dela zazpi urte jarri zen zerbitzu hau Arrasaten. Zerbitzuak garapen handia izan du urte hauetan. Etxeko lanak egiteko laguntza eta atentzio pertsonala eskaintzen ditu. Hau da, arazo fisikoak edota adina direla medio, bazkaria, garbitasuna, erosketak, etab. egiteko zailtasunak dituztenei lan hauek egiten zaizkie edota zenbait kasutan, garbitasun pertsonala egiteko ere laguntza ematen da.

Udal gizarte-laguntzaileak azaldu digunez, zerbitzuak aipatutako laguntzak besterik ez dituela eskainiko garbi izan behar da, askotan zerbitzuaren erabiltzaileek eurek ere ez bait dute zerbitzua zertarako den ondo ulertzen. "denetarako lagun-

*tzailea"* dela pentsatzen omen du zenbaitek.

### **Asko, lagun bila**

Zerbitzua martxan jarri zenean, lagunarte zerbitzua ere eskaintzen zen. Edonola ere, konpainia orduak

planteatu eta kartetan edota telebista ikusten ematen zuen jendeak denbora. Zerbitzua eskatzen duen asko jasaten duen bakardadea gainditzeko lagun bila joaten omen da; zerbitzua interesatuak berak eskatzen duenean igartzen da hau.

### **Ekonomia ahulenei zuzendua**

Zerbitzu honek bere laguntza ekonomia ahulena dutenei eskaintzea du helburu. Dirua dela eta laguntza inori ukatzen ez bazaio ere, diruz ondo dabilenak zerbitzua ordaindu egin beharko du. Zerbitzua diru arrazoiengatik ukatzeko bost milioiko kapitala izan behar da, nahiko diru kopuru altua, ikusten denez. Edozein modutan ere, diru iturri finkoa eta dexentea izanez gero, zerbitzua ordaindu egin beharko da. Elena Kortabariak, Gizarte-laguntzaileak azaldu digunez, gaur egun, diruz ondo dabilenak hobe du pertsona partikularra kontratatzea, zerbitzua eskatzea baino. "Zerbitzuak orduko 750 pta.ko kostua du eta norberak pertsona bat kontratatuz gero, orduko 500 pta. kobratzen duen jendea aurkituko du. Guk etxera joango zaiona nolabait inposatu egiten diogu eta norberak kontratatuz gero, aukeratzeko bidea dago". Garbi ikusten da, beraz, zerbitzua erabiltzeko eskubidea edonork izan da ere, diruz justu dabilenari mer-

**Hasierako mesfidantza gaindituz, gero eta jende gehiagok eskatzen du zerbitzua. Gaur egun 40 pertsonari eskaintzen zaio.**

zertan eman behar ziren garbi ez izatean, ez eskaintzea erabaki zen. Gizarte-laguntzaileak adierazi digunez, konpainia orduak berreziketarako edota bizitza ohitura hobeak irakasteko balio dezakete. Edozein modutan ere, ez zen horrelakorik

keago aterako zaiola, ez du ezer ordaindu beharko eta.

### **Birkontratutako enpresa**

Iaz arte, udalak berak kontratatzen zituen zerbitzu honetan lan egiten zuten pertsonak. Gizarte-la-



guntzaileak zerbitzuan lan egiteko prest zeuden pertsonen zerrenda izaten zuen eta langile bat behar ahala, izena emandakoren bati deitzen zion. Bertan lanean zihardutenek ez zuten inolako kontratu edo aseguruik eta langileak lortzeko bidea Udal batentzat egokiena ez zenez, aurten lan hau betetzeko enpresa bat birkontratatzea erabaki zuten. Zerbitzuan lanean ziharduten emakumeek ondasun elkarteak egin eta enpresa bihurtu ziren. Zerbitzua betetzeko enpresa hau besterik aurkeztu ez zenez, gaur ere, lehengo berak dihardute lanean. Inoiz baino gogo handiagorekin ari dira, enpresa aurrera atera eta datorren urtean zerbitzua betetzen segitzeko.



Honako hauek dituzue zerbitzuan lan egiten duten emakumeak

## Beharra dutenei on egiten diegu

**G**aur egun hamabi emakume ari dira Etkez-etxeko laguntza zerbitzuan lan egiten. Esperanza duzue hauetako bat, zazpi urte daramatza zerbitzuan eta berak azaldu digunez, ez da lan gogorra, batzuetan zaila den arren. *"Kontutan izan behar da pertsonekin lan egiten dugula, ohitura oso zehatzak dituzten pertsona helduak normalean. Zenbaitetan berehala ohitzen dira eta zeure kasa egin dezakezu lan, baina beste zenbait ez dira fidatzen eta zeure atzean ematen dute egun osoa, hau nola egin behar den azaltzen eta zeure lana gainbegiratzen".*

Zailena hasierako mesfidantza gainditzea omen da, pertsonak zein jarrera izango duen eta lanera doanak nola erreakzionatuko duen jakiterik ez dagoelako. Espek, esate-

rako, kasu berri bat hartu behar duenean, aurreko gauean lorik ez duela egiten adierazi digu.

Langile bakoitza, astean bost edo sei etxetara joaten da, eta egunean seiren bat orduz lan egiten du. Pertsona bakoitzaren beharren arabera eskainiko zaion laguntza desberdina izango da. Zenbaiti etxeko lanak egin beharko zaizkio, beste batzuei erosketak eta beste bati garbitasun pertsonala egiten ere lagunduko diote.

Espek azaldu digunez, azkenean pertsonen karinoa hartzen zaie, elkar ezagutzen dute eta edozein lagunekin bezalaxe, atsegin duena eta ez duena atsegin, maniak, etab. ezagutzen dira, uztea oso zail egiten delarik.

*"Etkez-etxeko laguntza zerbitzua eskatzen dutenak, askotan bakarrik bizi diren pertsonak izaten dira eta*

*zu noiz helduko zain egoten dira, azken finean lagun bat izan eta berarekin hitz egiteko." "Nik behin, kartetan jokatzeko besterik ez zuten nahi pertsona bati lagundu behar izan nion. Hari berdin zion etxea garbi zegoen edo ez, konpainia egin niezaion baino ez zuten nahi. "Etxea atzo garbitu zenuen ezta? Gaur pasadaxo bat eman eta kartetan jokatuko dugu Konforme?" esaten zidan maiz".*

Lan hau egiteko ez omen da dohain berezirik behar, pazientzia handia, aldiz, bai, entzuteko gaitasun handia, kontatzen dizutena interesatzen zaizula jakin erazteko gaitasuna eta tratuan kontu handia.

Edonola ere, familiaren laguntza ezinbestekoa omen da, azken finean udal zerbitzu batek ezin duelako pertsonak behar duen laguntza eta maitasuna gutziz bete.

**AUTO  
ESKOLA**


**ARRASATE**

**7etatik 8etara klase teorikoak**

Olarte kalea 30, Tfnoa: 79 89 89 ARRASATE



# Lagunak Oro Lagun Aron



Enpresakoak

Ondasunetakoak

Pertsonalak

Nekazaritzakoak

**Lagun Aro Asegurueta**n gure herriari konfidantza osoa eskeini diegu, eta berak, gogotik igorri digu. Horregatik, gure ahalmen aseguratzailea hobetzen saiatzen gara, Euskalerriko bezero guztiei zerbitzu onena emateko asmoz.

**Lagun Aron** poliza mota zabala daukagu, estaldura sendoenekin, une bakoitzean klienteei seguritate gorena eskeintzea posibilitatzen diguna.

**Lagun Aro** Europara begira dago, europar sendietatik % 20a aseguratzen duen Europako Kooperatiba Aseguruen Elkarteko partaide bezala.



**LAGUN ARO**  
SEGUROS ASEGURUAK

Lan Kide Aurrezkia Taldekoa



# “Heriotzari errespeto handia dio euskaldunak”

Alberto Agirreazaldegi, “Heriotza Euskal Herrian” kaleratu berri

**Orain dela hamabost urte egindako lana argitara ematea erabaki du Alberto Agirreazaldegi elgetarrak. Zenbait lagunek kaleratzera animatu ondoren, liburu honen bidez, Joxemiel Barandiarani bere omenaldi apala egitea erabaki du, lana egitean emandako laguntza eskertuz.**

— *Zerk bultzatu zintuen heriotza aztertzeraz?*

— *Alberto:* Ez dakit arrazoi zehatzik dagoen. Lan hau egiten hasi nintzenean ez nuen heriotzarekiko interes berezirik, tesia egin behar nuen eta Elgetako ohitura edo usadioak jasotzea pentsatu nuen. Hizkuntzarekin lotutako zerbait ere egin nezakeen, baina heriotza gaia hartu nuen azkenean. Dena dela, gerora ez naiz damutu, gai honen inguruan irakurri, sakondu eta ikasteko aukera izan dut eta.

Heriotzaren inguruan ikerketa handirik ez zegoela ere pentsatu nuen. Douglasen “*Muerte en Murelaga*” eta Barandiaranen lanak dituzu, baina ikuspegi konkretu batetik eginda zeudela iruditzen zitzaidan. Elgetako ohiturak jasotzea eta lana ikuspegi orokorragoaz burutzea ideia ona iruditu zitzaidan.

— *Nola ikusten dugu Euskaldunok heriotza?*

— Desmitifikatu egin behar dela uste dut. Ez dut uste euskaldunok heriotza desberdin ikusten dugunik. Nik liburuan jasotzen ditudan gauza asko eta asko, hor zehar ere ematen dira.

Nire ustez, heriotzarekin etapa bat amaitu eta beste bat hasten dela uste dute euskaldunak. Horren inguruan oso garrantzitsuak diren erritual eta ohiturak daude. Hori dela eta formak betetzearekin,

geroko bizitzan, arbasoen bizitzan sartzeko pasea lortuko dutela uste dute. Tartean gauza pila aurkituko dugu. Kristautasunak egokitu egin dituen erritoak, baina erabat paganoak direnak, kristautasunarekin nahastu egin direnak...

— *Elgetan, aurkitu duzu ohitura bitxi edo arrarorik?*

— Orokorrean ez dut uste gauza bitxirik dagoenik, ohitura gehienak, gutxi gora behera alde guztietan ematen dira eta. Aldakuntza batzuk izan dezakete, baina azken finean gauza bera da.

Bizien eta hilen arteko loturak estuak dira, edo ziren behintzat, gauza hauek galtzen doazelako. Bikote bat ezkontzen zenean esaterako, apaiza familiako hilobira

**“Ohiturak gordez, arbasoen erreinuan sartzeko pasea lortzen dela uste da”**

joan eta hil-otoia errezatzen zuen. Beste zenbaitetan andregai eta serorea joaten ziren eskaintza egitera. Arbasoekiko nolabaiteko konpromezua, tradizioak gordetzeko konpromezua hartzen zuten eta konpromezua ezkontzerakoan hartzen zuten.

Hildakoei egiten zitzaizkien ofrendak ere hor ditugu. Nire amamak, esaterako, gogoratzen zuen bera txikitari



Alberto Agirreazaldegi

hileta ibilaldian buruan ota-rrarekin joan izana. Hilda-koari ogia eramaten zioten ofrenda gisa.

— *Euskaldunak, heriotzaren aurrean beldur direla esango zenuke?*

— Ez dago beldurrik, gauza naturalizat hartzen da. Nire ikerketa hiltzoritik hasten da, agonia fasetik eta momentu horretan hasten da jendea heriotza prestatzen. Elgetan gaiso bat hiltzorian zegoenean, kanpaia jotzen zen. Gaixo zegoena emakumea edo gizonezkoa izan,

zu. Jendeak tradizioz egiten du, tradizioari eustea oso garrantzitsua da eta. Hildakoei jateko bizirik daudenean ere jan behar dutelako sinismena badago. Guk jaten baldin badugu, hildakoei ere jaten dute. Hildakoei janaria eta argia behar dituzte, ofrendak horregatik egiten dira. Segun eta hildakoa zein den, bazkariak eta hiletak, maila desberdinetakoak dira.

Elgetan hiru hileta mota zeuden. *Primeria* edo ogi nagusikoa, *segundia* eta *tertzia*. Azken hau pobrezia bazkaria zen. Segun eta zein mailatako hileta zen, elizan argi gehiago edo gutxiago izaten zen, apaiz gehiago edo gutxiago, etab. Ohitura hauek nire garaiera arte iraun dute.

Bazkariak ere nolabait honekin lotuta zeuden. Bazkarian familiartekoei eta auzo urrunekoek hartzen zuten parte. Besteei freskagarri antzekoa ematen zitzaien, baina ez zuten bazkarian parte hartzen, ez da edozeinendako bazkaria beraz. Bestalde, familia batek bazkaria ematen baldin bazuen besteak zorretan geratzen ziren eta antzekoak.

kanpai desberdina jotzen zen. Jendeak hiltzeko prozesua bizi zuen, normalean gaixo nor zegoen jakiten bait zuen eta gaizki noiz jartzen zen ere bazekien. Gauzak horrela hartzen direnez, beldurrik ez dago. Beldurra ez, baina errespeto handia bai.

— *Ondra bazkariak, bala du esanahi berezirik?*

— Askotan esanahia zuk aurkitu edo eman behar die-



## Bizkaitarrak listo rugbyan

*Funtsezko partiduetan, Federazioaren epailerik ez*

Arrasate Kirolak rugby taldeak, denboraldi irregularra egin du aurtan. Estrenatu berria zuten mailan, hasiera eskasaren ostean, Gabon inguruan partidu politak egin zituzten. Gauzak horrela, azken partiduetara mailari eusteko promoziotik ihes egiteko posibilitateaz heldu ziren.

Baina, begira nondik, funtsezko norgehiagoka horietatik, azken biak Bizkaian jokatu behar zituzten.

Gertatutakoak ikusi eta gero, edo bizkaitarrak oso listoak dira, edo rugby Federazioa inkompetentz josia dago.

Rugbyaren arauetariko batek zera adierazten du: ezuste baten ondorioz, partidura deitua dagoen epaileak ezin izango balu bertara joan, momentu horietan rugby-zelaian dagoen pertsona nagusienak egingo litzukeela arbitro lanak.

Ba, lehenik Gemikara joan ziren Arrasate Kirolakeko mutilak. Neurketa garrantzitsua, bi taldeak sailkapeneko azken postuetan orekatuta zeudelako. Federazioak gemikarrei epailearen izena eman, baina haiek ez zioten arbitroari abixatu. Ondo prestatutako plana. Arbitrorik ez, eta ze kasualitatea, rugby zelaian zegoen adin gehieneko pertsona, Gernika taldeko jokalaria ohi bat. Sekulakoak eta bi egin ondoren, bizkaitarrak markagailuan nagusi, 14-10.

Bizkaia aldean jokatutako hurrengo partidua, Bilbon.

Kasu honetan ere, bizkaitarrek ez



Hainbeste borroka egin, garbi jokatu, eta dena zertarako? Bizkaitarren zikinkeriak jasateko?

zioten arbitroari deitu. Bilbotarrak sailkapeneko lehen postuetan aurkitzen ziren, eta eurentzako ezinbestekoa zen bi puntuak eskuratzea. Federazioak Elorrixoko epaile bat izendatu zuen, baina itxura denez Elorrio eta Bilbo taldeak igoerako postu berdinatik ziharduten borrokan (eta horregatik ez zioten Elorrixoko arbitroari berri eman). Ze sorpresa, honako honetan rugby-zelaiko pertsona nagusiena, Bilbo taldeko lehendakaria izan genuen. Gure mutilek 10-6 galdu zuten.

Hemendik, galdera bat. Ba al dago Federazioan rugbya maite duen norbait?

Baldin eta badago, auskalo zeren zain dagoen garbitasun pixka bat eskuratzeko.



Pello Hiriart eta bere mutilak

ASEGURU ARTEKARIA

Zure esanetara  
gauzkazu!

Maalako Errabala 33, Etxabea.

Tfnoa: 79 69 00. Fax: 79 69 43 ARRASTE



podiuma

**Loli Errasti,  
xake mate erregeari**

Loli Errastik 23 urte ditu, eta Mondragoeko beste gazte askotxok bezalaxe, kooperatibetan behin-behineko lanaldiak burutzen ditu.

Karanbolaz heldu omen zen xakearen mundura. "Eugenio de Andres-ek animatu gintuen etortzera; nik orduan hamabi urte nituen, eta egia esan, hasieran ez nion xakeari kasu gehiegirik egiten. Guxtika-guxtika, geroz eta gehiago gozatzen hasi, eta gaur arte".

Eztabaida zaharra, xakea kirola den edo ez. "Kirola da, noski. Agian ez du esfortzu fisikorik eskatzen; baina xake partidak norgehiagokak dira, lehia; eta fisikoki egiten ez den lana, buruarekin egin behar den lan ikaragarriarekin konpentsatzen da".

Galdetu Loliri nola egiten duen aurrera Arrasateko xake taldeak, nondik nora ibiltzen diren. "Beno, alde batetik Gipuzkoako ligan aritzen gara, lau maila ezberdinetan; eta bestetik, herrietan antolatzen diren Openak jokatzen ditugu".

Herriko egoera ere aztertu nahi izan dugu berarekin, nola ikusten duen Arrasaten dagoen zaletasuna. "Taldean jende asko mugitzen gara, eta Santamas txapelketa antolatu genuenean adibidez, ikusle ugari hurbildu zen kiroldegira. Hori bai, ez da Donostia edo Oretan beste jende ikusten; han ikaragarritzko lana egin dute aspaldian, ikastetxeetan ikastaroak emanez, eta igerri egiten da, bai horixe!"



nez, eta igerri egiten da, bai horixe!"

Itxura denez, inguru hauetan aritzeko zerbait egiten ari dira. "Bai, lehenengo pausua La Merced ikastetxean eman dute; han dagoeneko lagun bat hartu dute xake klaseak emateko. Beste ikastetxe batzuekin ere harremanetan gaude, eta hortik zuzentzen dira gure asmoak: xakea haurren mundura hurbiltzea".

Kirol zaila dirudi xakeak, prestakuntza benetan berezia eskatzen duen horietakoa. "Hala da, bai; baina prestakuntza berezi horrek gero asko laguntzen dizu bizitzan. Xakean logika izugarri lantzen da, baita taktika ere. Erresponsabilitate zentzua indartzen du, huts egiten duzunean badakizu huts hori gaizki egindako zerbaiten ondorioz etorri dela, eta zu zarela errudun bakarra. Pixu hori jasaien erakusten dizu xakeak, eta bide batez, azkenean kiroltasunez galtzen erakutsi ere bai".

Kiroltasunez galtzen; ze gauza garrantzitsua den hori, ezta, Loli?

**Igoa Peña**

Astearte gauean Meson Manolon Jon Igoa Errealeko jokalaria-ren peñak antolatutako lehen afaria egin zen.

Peña horretako 50 bazkideez gain, makina bat aurpegi ezagun bildu ziren bertan.

Alde batetik ohorezko bazkideak, Iñaki de Mugika eta Joaquín Urfo Velazquez arbitroa.

Eta bestetik, Jon Igoa bera eta Errealeko hainbat lagun: Boronat, Iriarte, Larra, Fuentes, Agirre, Uria, Mugika, Dadie, Mentxaka, Patxi, Gonzalez, Billabona, Lasa eta Martinez hain zuzen ere.

Entrenatzaile eta taldekideen ustetan, Igoarentzat oso zaila da momentu honetan titular izatea, Aldridge-k betetzen duen lan apartagatik. Baina ederto ikasten ari da irlandarraren estiloa, eta denbora gutxi barri lehen mailako jokalaria trebe bihurtuko zaigu.

Zorte on, Jon!



**LA UNION**

Garaje elektro-mekanikoa  
Agentzia ofiziala

Tailerra: Zaldispe 2,

Erakusketa: Sancho Abarca 6,

ARRASATE Tfnoa: 79 97 12



**E D E L  
TAPIZTEGIA**

Gortina  
Alfonbra  
Koltza

Bidakruzeta 14, Tfnoa: 76 16 25  
BERGARA



# Auto berria, baina dirua nondik?

**B**egi bistakoa da gero eta auto berri gehiago erosten dela. Iazko urtean, eta estatu espainiarrari dagokionez, milioitik gora auto berri erosi da, duela urte gutxi egin zitekeen aurrikuspenik baikorrena ere aisa gaindituz.

Baina, gehienetan, auto berria erosteko behar den dirua eskatu egin behar izaten da. Autoen merkatua aztertzen duten erakundeetariko batzuk argitaratu berri dituen datuen arabera, erosleen %19ak oradintzen du auto berria diru propioz. Bestela esanda, erosleen hamarretik zortzik dirua beste nonbaiten lortu behar du. Baina non?

Doxa ikertzailearen inkestak dioenez, gero eta gehiago dira auto berriaren dirua autogileari berari eskatzen diotenak, banketxe eta aurrezki kutxen kaltetan. Hain zuzen

ere, erosleen erdiak hartzen du bide hau, banketxeetara laurdena bakarrik doan bitartean. Nabaria izan da azkenaldi honetan auto-saltzaileen aldetik egon den eraso auto berrien finantzaketari buruz, eta badirudi ohizko finantz erakundeei jipoi ederra ematea lortu dutela. Kontutan izanik oso hedatua dagoela banketxeen finantzaketa bestea baino merkeagoa delako ustea, zeintzuk ote dira joera honen arrazoiak?

Banketxeetan, aurrezki kutxa eta beste finantz erakunde tradizionalak barne, mailegua lortzea konplexuagoa izaten da. Normala da maileguaren truke soldataren helbideratzea edota bermatzaileak eskatzea. Autogileei atxikitako finantz etxeek, berriz, autoaren jabegoa gordetzen dutelako, ez dute horrelako tramiterik behar.

Bestalde, auto berriarekin duten irabazari esker, erosketaren baldintzak ere hobetu egin ditzakete, hau da, auto berriari gauza gehiago erantsi edo zaharraren prezioa gehitu. Edota, zentzu berean, finantzaketaren baldintzak eroslearen komenientziara egokitu. Ezagunak dira hainbat denbora interesik ordaindu gabe edo ezer ordaindu gabe egin izan diren eskaintzak, geroago guztira ordaindu behar izaten badira ere.

Erosleak bide hauek aukeratzeak zera adierazten du, alegia, bi finantz moldeak konparatzerakoan kostu garbia ezezik, lortzeko samurtasuna eta ordaintzeko erosotasuna ere oso inportanteak direla. Eta hemen legoke finantz erakunde berrien arrakastaren zergatia.

Mikel Intxausti

## Gorka

ILEAPAINDEGI MIXTOA



Bainetxe kalea 10, behea. Tfnoa: 79 96 80 eta 79 63 27  
ARETXABALETA



**PEÑACOBBA**  
Auto-Eskola

Zarugalde, 46  
79 14 01

**ARRASATE**

## BASABE JATETXEA

Menu eta afariak  
Boda eta banketeak  
ARETXABALETA

## ORTZI erretegia

Angiozar auzoa  
Tfnoa: 76 22 68  
BERGARA

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI  
BADUZU EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....

HELBIDEA.....

HERRIA.....

Azoka kalea 1, ARRASATE Tfnoa:77 08 15

## ARRASATE PRESS

77 05 65



## URREZKO 8 ARAUAK

### ETXEBIZITZA EROSI EDO SALDU BEHAR DUTENENTZAT



**1. Eskain-eskari merkatu handia izan**  
Oso garrantzitsua da erosleentzat salgai dauden etxebizitza gehienak aztertu ahal izatea eta jabeentzat erosleak informazioa jaso dezaten.




**2. Kolaborazio espezializatua bilatu**  
Aholkulari espezializatuaren lana, nahitaezkoa da etxebizitzaren salerosketak dauzkan aspektu guztiak ezagutzeko.




**3. Seguritasun-neurriak bilatu**  
Disgustu bat baino gehiago ekiditeko (ebitatzeko), zamak, hipotekak, bahiturak, morrontzak, etab. ezagutzea, ordainketak kontu abalatu-tan egitea, eta nori zabaltzen eta erakusten dion etxea jakitea.



**4. Ondorio fiskalak aztertu**  
Fiskoarekin topo egin gura ez baduzu, aukera desberdinen ondorioa aztertu, etxebizitza erosi edo saldu baino lehen.



**5. Behar den denbora inbertitu**  
Eta ez gehiago. Erosleek, informatizazioaren bidez, "bat-batean" ezagutzen dute. Hauek merkatua eta planoak, giltzak, etab. dauzkate. Jabeek ez dute gestiorik egin behar Erakunde, Kutxa, Notari, Erregistroetan...



**6. Aldez aurreko balorazioa egin**  
Saltzeko zein erosteko, merkatuko benetako prezio egokia eta ondo jakitea komeri zaizu.



**7. Finantz alternatibak aztertu**  
Eta salerosketen-kontratu bati erantzuleko kreditu eta subentzio-alternatiba desberdinak zehatz-mehatz ezagutzea eta mesedegarriena aukeratztea.



**8. Kontu handia jarri kontratuan eta eskrituran.**  
Kontratu on bat saltzaile eta eroslearentzat, biontzako, garrantzia da. Garrantzitsua da, halaber, legez tramite desberdinak eta bere kostuak ezagutzea: eskriturak, BEZ, notari-gastuak, erregistro-gastuak, gainbalioa, etab.



Anboto

Guzti hau geure bulegoan konponduta izango duzu, talde profesional batek abalaturik.



Anboto

## ALTZARI ZAHARREN BERRIZTATZEA (RESTAURAZIOA)


Emalea: *Victoriano Larrañaga (Berriztatzaila)*

Egunak: martxoak 22 (osteguna)

AEDn lokalean 3,30etan

Matrikula dohainik.

Informazioa: 79 54 46





# Hezkuntz Erreformaren egituraketa

Aurreko hiru artikuluetan Hezkuntz Erreformari buruzko hainbat informazio jaso ahal izan duzu, besteak beste, honen justifikazioa, oinarri psikopedagogikoak,...

Oraingo honetan, Hezkuntz Erreformaren egituraketaz ihar-dungo dugu.

Hasteko, esan behar da "Derrigorrezko Hezkuntza" bi urtez luzatzen dela, hau da, orain arte 14 urterartekoa bada, hemendik aurrera 16 urterarte luzatuko dela. Horrek esan nahi du, ikasle guztiek 16 urterarte eskolarizatuak egongo direla, eta tankera bereko eskolatan, gainera. Beraz, "Derrigorrezko Hezkuntzak" 10 urtetako iraupena izango du, 6 urtetik bitartekoa, hain zuzen.

Hona hemen Hezkuntz ikas-

mailen egituraketa:

0-6 urte bitartekoa: haur hezkuntza.

Ez da derrigorrezkoa, ez eta dohainik ere. Bi azpi-sail ditu: 0-3 eta 3-6 bitartekoak. Ikasleen gaitasunak garatzea, adin honetatik aurrera sortzen diren desberdintasunak orekatzea eta hutsuneak ebitatzea dira beronen helbururik nagusiak. Maisu-maistren ardurapean egongo da.

6-12 urte bitartekoak: oinarrizko hezkuntza.

Derrigorrezkoa eta dohainik izango da ikasmila hau. Maisu-maistren ardurapean egongo da, baina hainbat arlotarako irakasle espezializatuak izango dira (Soinketarako, Atzerriko hizkuntzarako, Musikarako). 8 urtetik aurrera ikasleek atzerriko hizkuntza bat ikasten

hasiko dira.

Ikasle bakoitzak Derrigorrezko Hezkuntzan zehar 2 urte errepikatze aukera izango du.


Orain arte aipatutako "Derrigorrezko Hezkuntza" burutu eta gainditu ondoren, ikasleak bi aukera izango ditu ikasketak jarraitzeko, bata Batxilergoa eta bestea Hezkuntza Tekniko Profesionala (gaurregun Lanbide-Heziketa).

Baina beste ikasle batzuk "Derrigorrezko Hezkuntza" burutu bai, baina gutxieneko maila gainditu ez badute, Hezkuntza Tekniko Profesionalera jo beharko dute derrigorrez, Hezkuntza arautuan jarraitu ahal izanez gero.


Bai Batxilergoak eta bai Hezkuntz Tekniko Profesionalak ere aldaketak daukate beren ikas plan-gintzetan.

Klarion Taldea

**Felipe  
Arrizabalaga**  
aroztegia



Legarre pabiloia Tfnoa: 79 22 76 ARRASATE



Errekabarren 20, Tfnoa: 79 80 90  
ARETXABALETAK

**AUSTIN ROVER**



**AUTO SAN ANDRES**



**IBILGAILU-MOTA GUZTIETAKO KONPONKETA ELEKTRIKOA**

Araba Etorbidea 5, Tfnoa: 79 95 22 ARRASATE



# Nerabezaroa (V)

## Gurasoen ohitura etilikoak

E datea da jendearen artean dagoen ohiturarik zabalduena, eta hau ez da euskaldunen artean bakarrik gertatzen, herri industrialduetan alkoholaren gehiegizko kontsumoa gizarteak duen osasun problema haundienetakoa da.

Alkohola gutxi edaten denean ez da txarra, ez goaz ona dela esatera ere, baina zoritxarrez asko dira helduen artean, ia %27a, neurri haundian alkohola edaten dutenak.

Inkesta honetan ez dugu gurasoek edaten dutena egiaztatu, baizik eta galdetu duguna zera izan da: edateko ohitura duten ala ez, eta hauek izan dira ondorioak:

	Aita		Ama	
	z	%	z	%
Edateko ohitura dute	730	77,17	338	35,70
Ez dute inoiz edaten	101	10,67	357	37,73
Noizean behin edaten dute	112	11,84	248	26,21
Ez dakite	3	0,32	3	0,32

Garbi dago gizonen artean, emakumeen artean baino

zabalduegoa dagoela edateko ohitura.

Eta emakumeen artean gehiago edaten dute etxetik kanpo lanean dihardutenek etxeko andreak baino.

	Etxeko andreak		Etxetik kanpoko lanean	
	z	%	z	%
Edateko ohitura dute	183	32,04	169	41,83
Ez dute inoiz edaten	257	45,02	109	26,98
Noizean behin edaten dute	131	22,94	126	31,19

Funtsean, gizonezkoen %77 dira edateko ohitura dutenak, eta emakumeen artean portzentaia hau %35,70ekoa da, ia -ia erdia.

Alkohol eta tabakoaren kontsumoa oso elkarturik doaz. Gizonen artean 421, hau da %44,22a, dira edan eta erretzen dutenak, 46 bakarrik dira erre eta edaten ez dutenak.

Emakumeen artean, 84 dira (%8,59a) ez erre eta edaten dutenak, eta 306, %31,25a, edaten ez dutenak.

Begiluzeentzako datu bat: 54 senditan (%5,47) senar-emazteek, biek, erre eta edaten dute.

*Eukeni Olabarrieta eta Arantza Lizaso*

# KONTZERTUA


# NERTHA

Martxoak 17, larunbata

Gaueko 10:30etan

Sarrera: 300 pta.

Amaia antzokian



ARRASTEKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA




## Bizikletan Gorbearaino

**A**spaldian genuen buruan hara eta hona Gorbeara bizikletan joatearena. Horretarako udazkena aukeratu genuen, goiz eguzkitsua eta epelean abiatu ginen Bilerle (Legutio) aldera, gero Zigoitia aldera Murua herrian geratzeko. Hemen-dik Gorbeia urtegietarako bidea hartu eta bide eskasa hartzen den tokian bertan aparkaleku moduko batean bizikletak gertatu eta Gorbeia joateko prest geunden.

Bizikleta txukundu, jatekoak aukeratu, beroketak egin eta bizikleta gainean, bertan dagoen gaitardua zeharkatu genuen. Makinaxo bat jende zegoen gaitardua baten.

Hasieran, pista harritsu zen eta aldapatsua. Gero, berotu ondoren paisaia murgilduta konturatu ere ez ginen egin. Saimendi, Peña Rotara iritsi eta urtegitik datorren bi-



dea begiztatzeko. Lautadatxoak igaro (Gonga) eta ondoren, sekulako aldatsa izan genuen, Pagazuri baino lehenxeago. Dagoeneko 1.181 metro-tara geunden, eta iturria duen Pagazuri toki eder horretan Zarate eta Munurga herrietatik datorren bidean jende-multzo handia ikusi genuen.

Gure baitan laster iritsiko ginela-ko esperantza zabaldu zen bapatean, baina gora egin eta oraindik Arroriano aurrean (1.343 metro-tara).

Hemendik aurrerakoa bizikletan erraza, lasai-lasai eta indar berriekin. Gure aurrean, parean, aurrez aurre Gorbeagaina azken txanpa igo ondoren, 1.482 metro.

Gurutze ondoan hamarretakoa egin eta zorionaren zorionez, bertako haize freskoa eta dastagarriaz gozatu eta berriro ere, beherantz, herrira eguneroko bizitza, naturara, zuhaitzak, errekek dauden lurraldera egin genuen.

Oraingoan beherantz bizikletan, burukoa-kaskoa ipini eta balaztak txirrina atera arte ere sakatuz Mairulegorretarako bidean behera egin genuen. Ez ginen ausartu Bizkaialdera jaisten, aldats handiegia, non-bait.

Promes egin genion geure buruari Udaberrian edo Udan itzultzeko eta Aldamioestetik datorren bidea jektzeko.

K. U.

# BIDEO-EMANALDIA

## Polizi akademia eroa 3

**Tokia:** Monterron Kultur Etxea

**Eguna:** martxoaren 17

**Ordua:** arratsaldeko 4etan eta 6etan

**Prezioa:** 50 pezeta

**Sarrerak:** Monterronen

**Antolatzailea:** Arrasateko Udaleko Euskara Batzordea





## ARRASATEKO UDALA

**Udal-Plenoak, 1990eko martxoaren 2an egindako ohizko bilkuran,  
hartutako akordioen laburpena.**

- "Lau kale, S.A" enpresak bultzatuta, U.13.1, U.13.2 eta U.12.1 Unitateei buruzko Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuak aldatzeko testuari behin-behineko onespena ematea.
- (Hirigune Zaharreko Erdialdean) A-6 Areari buruz Udal Planeamenduko AA.SS.en Elementuak Aldatzeko Testua behin-behinekoz onartzea.
- (U.6.2,U.6.3. eta U.6.4.Unitateak) Santa Barbara Barne-Erreformaten Plan Bereziaren Proiektuaren Testua behin-behinekoz onartzea.
- (Musakola Auzoa) A-20 Arearen Barne-Erreformaten Plan Bereziaren Proiektuari hasierako onespena ematea.
- Udaletxerako altzariak adjudikatu eta jartzeko kontratua "Roneo, S.A" enpresari, 10.918.230 pezetatan, eta "Kemen" enpresari, 6.078.762 pezetatan, adjudikatzea.
- San Kristobal inguruan Udal Kanposantu berria kokatzeko S-6 Sektorea, U.6.11 eta S-16 Sektoreari buruzko Arau Subsidiarioen Elementuak Aldatzeko Testuaren Aurrelaburpena, jendeaurrean jartzea 30 egunetan.
- Udal Euskaltegia handitzeko Loramendi Kaleko 9 zenbakian dagoen lokal bat erostea.
- Obra Publikoetako Injeneru Teknikoa lanpostu bat hornitzeko agindu behar duten oinarri-arauak onartzea.
- Delineante lanpostu bat, txanda mugatuaren bidez, hornitzeko agindu behar duten oinarri-arauak onartzea.
- Obra eta Mantenimenduko Lantaldearen Arduaraduna lanpostua, txanda mugatuaren bidez, hornitzeko agindu behar duten oinarri-arauak onartzea.
- Gipuzkoako Kutzaren Kontseilu Orokorrerako Udal Ordezkarari Jose Antonio Azurmendi zinegotzia izendatzea.
- Aldi baterako, Udal honetako biltzaile-agente betetzaile Maria del Coro Barrena Andrea izendatzea.
- (San Josepe) A-11 Areari buruz Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen Elementuak Aldatzeko Proiektuari hasierako onespena ematea.

*Arrasaten, 1990eko Martxoaren 5ean*

*Alkatea*





Aste gazte

“Orain hogei urte ditudala, orain ondino indarra dudala, arima hil gabe dudala eta odola irakiten sentitzen dut...”

Joan Manuel Serrat

**Ikastaroa**

• Jota Ikastaroa (matrikula doan), 12-14 urte bitartekoentzat. Asteazken eta ostiraletan, arratsaldeko 7etatik-8'30etara. Iraupena: hilabete. Hasiera: martxoaren 22an. Izen-emateak: Gazte-zerbitzuan.

**Beka**

• Beka eta laguntzak espainiar eta amerikar kulturen hedapenerako. Modalitateak: arte, literatur ikasketak, hizkuntzen irakaskuntza, ikerketa, etab. Beken modalitateen

arabera. Epea: 1990eko apirilaren 16an. (BOE irailaren 15ekoa).

**Lehiaketak**

• “Zumarragako II. Komiki Lehiaketa”. Gaia librea izango da, pertsonaiek orijinalak eta ezezagunak izan beharko dute. Lanak zuri-bel-tzean, eta lehiaketatan orijinala aurkeztu behar da, teknikaren aukera nork berea egingo duelarik. Lanen luzera 2 edo 4 orrialdekoa eta zabalera DIN A-3rena izango da (29'7x42). Sariak: 60.000 eta 40.000 pzta. Epea: 1990eko apirilaren 21a baino lehen.

• Ipuin eta piano lehiaketa.

\* XIV ipuin lehiaketa (Madrid). Lema sistemaren bidez egingo da (5 kopia bidaliz). 3-7 orritakoa eta gaztelaniaz izango da. Saria: 100.000 pzta. Epea: martxoak 31.

\* IX. Piano Lehiaketa (Nueva Acrópolis). Partehartzaileak: 18-30 urte bitartekoak izan behar dira. 3 Sari: 100.000, 50.000 eta 25.000 pzta. Epea: apirilak 2.

• “Juan Ramón Jiménez” Poesia Lehiaketa (Huelva). Erdaraz idatzita. Saria: 1.000.000 pztakoa eta poemarioaren argitalpena. Lanak aurkezteko epea: martxoak 30.

• “Ciutat de Castelló” (Castellón). Modalitateak: Zientziak, Teknika eta Giza gaiak. Bakoitzak 500.000 ptako Saria. Gaiak: “Castelloren arkitektura zibila”, “Castellonen probetxamendu hidrolojikoak”. Lanak gaztelaniaz aurkeztu beharko dira. Lema eta plikaren sistemaz. Epea: apirilak 4.

• Poesia Itzulpena. (Estremadurako Unibertsitatea). Ingeleseko lanak gaztelania edo euskarara itzulita. Lanak boskoitzan aurkeztuko dira. Saria: 25.000 pzta. Epea: 90-04-01.

• XI. Arte Plastikoen Deialdia (Alicante). Gai librea. Tamainoa: 2 m. gehienez. Epea: 90-03-15.

• “Maria Canals” Piano eta Perkusio lehiaketa. 18-30 urte bitartekoentzat. Saria: 500.000 ptakoa. Epea: apirilaren 3an.

**Deialdia**

• Euskal Herriko Ikastolen Konfederakundeak, udalekuetarako monitore plaza betetzeko deialdia egiten du. Euskera menperatu behar da eta 18 urtez gorakoak izan daitezke monitore. Izen emateak egiteko, jo ikastolen elkarteetara. Epea: martxoaren 30a arte.

**AUKERARIK ZABALENA LENTILATAN**



- Gogorrak
- Porodunak
- Bigunak
- Kosmetikoak
- Erabilpen iraunkorrekoak

**Egoki geratuko zaizkizun garantia osoa!**

**Eta bestela, LENTILEN ORDAINA ITZULIKO DIZUGU**

**Zure betaurreko eta lentilen aseguruia dohainik**

**Kontzeziño kalea 6, Tfnoa: 79 25 98 Arrasate**



**ETXEBIZITZAK**

- Neska behar da Donostian pisua konpartitzeko. Tfnoa: 76 43 74 (arratsaldeko ordubietan)
- Ikasleak Donostian pisua konpartitu nahiko luke. Tfnoa: 27 86 84. Astegunetan arratsaldez.
- Zigarrolan pisua erosiko nuke. Intere-satuek deitu 79 62 89 tfnora.
- Errentan erdialdean pisua osatzeko pertsona behar da. Gela izango luke. Tfnoa: 79 51 49 eguerdian edo gaueko 11etatik aurrera.
- San Andresen garajea alokatu edo ero-siko nuke. Jabier 79 50 53
- Bi neskak tokia behar dugu Bilbon, pisu konpartituan. Deitu 79 26 62 tfnora.
- Bikoteak errentan hartzeko teilatupe edo pisu txikiren bat nahi genuke. Tfnoa: 79 81 76
- Aramaio kalea 4, etxabea etxebizitza salgai. Deitu 795521 tfnora.
- San Andresen etxebizitza salgai. Erre-buelta kalea 8-3.D. Telefonoa 79 97 18.
- Konpartitzeko pisu bila. Deitu 79 39 00 tfnora, gaueko 10etatik aurrera, edo (948) 24 31 95 tfnora edozein ordutan. Blankaz galdetu (ATS).
- Errentan pisu txikiren bat edo teilatu-pea hartuko genuke bikote batek. Ez digu axola hutsik bada ere. Tfnoa: 79 81 76
- Bi oheko logela eskeintzen da. Tfnoa: 79 07 73

**LANA**

- Disko-pub-kafetegietan esperientzia-dun kamarera lan egiteko prest. Itxura onekoa. Tfnoa: 79 70 41 (Teles)
- Umeak edo pertsona zaharrak zaintze-ko prest (gauetan eta asteburuetan) Tfnoa: 79 28 30.
- Neska euskalduna OHoko haurrei kla-se partikularrak emateko prest Deitu arratsaldeko 7etatik aurrera 79 64 82 tele-fonora.
- OHoko klaseak ematen dira. Tfnoa: 79 26 19 (Itziar)
- Emakume euskaldunak umeak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. Tfnoa: 79 07 73.
- Bi emakume euskaldun behar dira asteburuetan erretegi batean lana egi-teko. Deitu tfo honetara 76 22 68
- Emakume gazte eta arduraduna lane-rako prest. Tfnoa: 79 77 36
- REM IEE 'ehen kurtsorako irakaslea hartuko genuke, egunean bi orduz, klase partikularrak emateko. Interesatuak dei: 79 59 08 (Marilu)
- Etxeko lanak egin eta haurrak zainduko nituzke. Tfnoa: 79 73 83
- Edozein lan egingo nuke. Tabernan, ja-tetxean, haurrak zaindu... Dei 79 15 35 te-telefonora.
- Pertsona euskalduna behar da ikaste-ixeetan eta etxez-etxe bideoak saltzeko. Baldintza interesgarriak. Interesatuak deitu 79 54 46 telefonora.
- Sukaldeko lanak egingo nituzke. Dei 79 43 93 telefonora
- Emakume euskalduna behar da etxeko lanak eta bi ume zaintzeko. Tfnoa: 79 06 66. Goizez.

**SALEROSKETAK**

- Montego Turbo SS-2264-Y salgai. Tele-fonoak: 52 53 38 27 62 66.
- "Yamaha SR-250 especial" SS-Y salgai dago. Primeran dabil eta 17.000 km ditu. Dei telefono honetara 79 61 89.
- Brontzeko lanpara ederra salgai. Tfnoa: 792358
- Gozotegirako labe handia salgai. Bere fermentaziorako kamara duelarik. Saba markakoa. Tfnoa: 79 23 58
- BMX Torrot bizikleta salgai. 12.000 pta. Baita JOMA markako takozko zapa-tilak ere. Berri-berriak. 36. zenbakia. 1.500 pta. Dei 79 97 69 telefonora 8etatik aurrera. Inma.
- Hozkailua salgai egoera onean. Dei 8etatik aurrera 79 45 10 tfnora.
- Bi markako SONOR soporte platerak, Bateriazko aukia eta paiste 3000 Rude markako platoa saltzen dut. Gutxi erabili-ta daude. Telefonoa: 79 91 59 Xabier (eguerdiko 1etatik 2etara)
- R-5 GTL kotxea saltzen dut. SS-M alu-miniozko llantak. Beltza. Zapaia solarra. Telefonoa: 799159. (Eguerdiko 1etatik 2etara)
- Vespa 200 salgai. Berri berria. Deitu 79 24 66 tfnora.

**DENETARIK**

- Otsallaren 14ean monopatina galdu nuen Santa Barbara inguruan. "Punk Smile" idatzia du atzekaldean. Mesedez, ikusi baduzu dei 79 95 71 telefonora (Josu)
- Zorionak amatxo zure egunean, mar-txoak 16. Dunixe eta Oxel.

**ARRASATEN HILDAKOAK**

- Luis Etxebarria Axpe  
Martxoaren 6an. 68 urte
- Manuela Barrenetxe Landa  
Martxoaren 8an. 81 urte
- Jose Rodriguez Vicente  
Martxoaren 8an. 77 urte
- Romana Eraña Iribecampas  
Martxoaren 11. 85 urte
- Miguel Gomez Galindo  
Martxoaren 12an. 62 urte
- Felipe Ramos Prieto  
Martxoaren 13an. 55 urte
- Manuel de la Maza Aranguren  
Martxoaren 13an. 59 urte

**ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA**

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

Azoka 1,

20.500 ARRASATE Tfnoa: 77 05 65



## Famauen ahotik

### Nikolas Gardoki, EGUZKIko soiñujole eta kantaria



#### Sesenta inguruen taldia lobakin

Loba bixei egunero solfeo apur bat emoten nutzan da neuk nakixena erakutsi nutzan. Da, gaztienak soiñue ikesi juan ta bestiek saxofoie ta gero ba, jazbana be erosi gaixuan eta hola-xe, lehen hasi nintzen letxe, lehenengo Aramaixon eta gero apurke-apurke gero ta pieza gehixau ikesiaz...Eurak pa mutikuek, hamaike urte inguru-ero eukiko jittuen nirekin ekin eutzienien eta alkarrekin ba hamabost urte ero ein gittuan. Ta gero ba Landa eskoitzarra eta semiaz hasi nitzuan eta oin hiru urtetik hona Landan ordeztu Agustin Ugarte oñatiarra jabik.

#### Gustoruen bodetan

Bodak morukoik etxak. Bodara jueten gaittuk laurek laren gutxietarako porsiakaso tartiena joteko-ero eta trunkill etxoitten: kafetxo bat hartu... Ta iguel tartaik pe ez, ta gero akabetako orduen gehixen baten izeten dok zortzirek ta leku askotan zazpi tt'erdiek, ta guri leku askotan tokau izen jakuk pa ordubete jo barik etxera etortie. Ta hori ba izeten dok ensaio

#### PREPARATIBUEK

Radixotik zintan hartu eta gero semiek papelera pasetan jok. Gero zintie bakoiz bere aldetik entzun eta preparetan juau kotxien ero. Hori eñ ezker, gatxa ezpada, ensaio baten ero bitten domiñetan juau.

bat izenten dok. Ta gero, ba, bodetan beti umore ona egoten dok. Ez dok erromeixetan moduen. Erromeixetan askotan, ba, eurixe dala ta auzoko mutillek eta "hortik tabernatik atara bihe gauela diru apur bat eta jenteik ez dator" ta, jentie triste ta musikuek pe iguel kulpie.

#### Lanera zuzenien be behin baino sarrixau

Hemen normalien domekan jaixek eguerdixen ero akabetan dittuk baiñe hor oin jueten garen lekuen, hau Larrabezua, Zamudio, Lezama, Derio, hor inguruen astelehenien bada jaixe astelehenien, martizenien bada martizenien...hango zaharrai tte gartziei ez esan jaixek kanbixetako, eta iñok etxok eukitten prixeik etxera jueteko. Eta holako lekuetatik ba zuzen etorri biher.

#### Soiñue ondo zaindu biher

Soiñuei kasu ein bihe jakok. Umedadie dok txarrena eta euzkixe be bai. Euzkitten euki ezker laster kanbixetan jakok sonidue. Ta beste gauza bat txarra dok butanue ebalten dan lekuen eukittie: grasa moduko bat formetan jakok. Bestela kasu eñ ezker berrogei urtien be ondo.

Estepan Plazaola eta J. M. Garai

## Zelebrequerixak

Gerratia akabau zanian baztarretan sakabanatuta zebitzenak hasi zien banan-banan etxeraten. Mariño pelotarixa be azaldu zan halako baten Eibarrera, burua lengo lepotik zebala.

Herrixan gerriak egindako txikizitiñuak oinddio agirixan zeren. Lenengo egunian Astelena frontoia ikustera joan zan lagun batekin.

— Hau lengo moduan daok-esan zotsan honek.

— Ez -kontestau zotsan Mariñok-, kuadro bat gehixau daok.

— Hi bistatik endreatu etorri haiz. Len hamaika kuadro zittuan eta oin be hamaika ikusten jittuat.

— Hemen behian bai, baiña harekin goikaldian beste kuadro bat zeuan: Patxi gailleguana.

■ ■ ■ ■ ■

Gazia jaten ziharduan xagu harek azelakotxe sustua hartu eban katuan hatzapparretatik justu justuan ihes egin ebani.

Katua zain, "urtengok" esanaz. Eta xaguak bere kautetan "aspertuko haiz". Luzaruan egon zien bakoitza beriarri eutsiaz, bata zuluana, bestia zuluana kanpokaldetik.

Halako baten txakur zaunkia entzun zan. Batera batera katukurrixak miauka larrixekin nahastua.

Xagua orduantxe pozik. "Horrek arreglauko hau- ziñuan bere artian-. Zer uste eban ba? Begi guztiak etxuek batera negar eitten. Hiri be aillegau jak txandia heu baiño gogorrago batekin".

Katua menpian ikusitta pozik, etara dau burua zulutik eta etaratziaz bat oratu dotsa katuek hatzapparrekin, esanaz.

— Txo, hemen eztaok katurik. Gaur egunian, jango bada, biharrezkua dok hizkuntza pare bat jakittia.

Juan Martin Elexpuru



## OMU mosaikoak

Zeramika-erakusketa: Otorora 1ean  
Biltegi berria: Meatz-Erreka

ARRASATE



## KILI-KOLO

Ferrerias 21  
Tfnoa. 797006  
ARRASATE





Aste Santuko prozesioa. 1927


**O**stiral Santua zen, 1927ko Aste Santuan. Ohiturari jarraituz, urtero bezala, egun hartan ere parrokiako irudiak atera ziren prozesioan. Zeremonia handiko egunak izan ohi ziren: gizonak gorbataz, emakumeak beltzez eta mantilaz, mutilak txaketaz eta abadeak bonetaz.

Aingeruek (ezkerretik eskuinera Eugenio Resusta, Pako Aranbarri eta Joxe Ramon Aranzabal) arantzazko koroa, Inri kartela eta mailu eta iltzeak zeramatzaten.

Aingeruen atzean ezkerretik hasita, Xabin Arrieta gaztea, Unzueta abizena duen anderoa, Joxe Azkoaga gurutzearekin eta

Faustino Etxebarria beste anderoa. Hurrengo abadea on Rafael zen, Santa Agedakoa.

Argazkia Garibai kalean atera zen, prozesioa Lau Bidetik Kontzesiforantz zihoala. Eskuineko etxea Roneo etxea zen.



**E**LSKARAREKIN  
ZERIKUSIA DUEN  
ZERBITZURIK ZABALENA

- ITZULPENAK
- HIZKUNTZ MAILAKETA-FROGAK
- DOKUMENTAZIO-ZERBITZUA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA

BALLENEROS KALEA, 12-1. A - 20011 DONOSTIA

TELF. 943 - 46 69 06 / FAX 943 - 46 68 94



Pixar	Seigarren hilabetea	Tristeia	Gozo	Auzategian
Ausarta	Urkabeak	Eratua	Eta	
Bizk. Prestatu				
Lizun				
			(Aurriz.) Itsaso	
			Koldarrak	
Deitore	Janari errazioak			Zero
	Pozik			Nekoso
			Emakume izena	
			Egur	
Egile atzikia		Atzen		
Partituak		Bokala		
				Animalien gordalekua
499		----- urte, urterik urte Atzikia		
Moral				
			Amasezak hil	
			Bromoa	
Putre			Oihan	
Zaren horrek			Bokala	
		Kurba zatia		

# Hitz gezidunak

V	K	R	V	K	U	Z
O	S	B	A	I	S	I
O	I	K	V	K	I	E
Z	E	R	U	D	I	I
K	A	T	U	V	A	B
N	A	Z	K	E	N	L
V	A	N	L	M	V	L
O	K	N	O	V	A	I
Z	I	S	I	T	S	L
U	T	A	N	T	A	P
V	A	I	T	Z	A	I
E	H	E	H	E	I	I

ENBIDotik hartua, ELKAR-en baimenarekin

**ARRASATE  
PRESS**

77 05 65

**“PAL”**  
burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria


Uribarri etorbidea 3,  
Tfnoa: 79 31 99

**BERANGO**

Aroztegia orokorra  
sukaldeko altzariak  
kanpo eta barruko atearak

Legarreko pabiloi industrialak  
(behea) Tfnoa: 79 01 92  
ARRASATE





### **Laburpen zoragarria**

Zigarro askotxo erre ditugu,  
eta honela joan zaigu bizitza.

Solasaldi luzeak  
eta lan zekentxoak. Baita negarraldi laburrak ere,  
eta gorputz segida. Eta sermoi gor haiek,  
eten gabeak. Noizbait ederra ere izan zen.  
Salba zezaketen hitz bakan batzu aukeratu  
eta hona emaitza gaiztoa:  
honela gordetzen du soak aurpegi iheskor bat.  
Gaur, bera aienaturik honez gero, duda hauxe soilik:  
ez dakit bizkorregi ala  
mantsoegi joan ote zaigun.  
Eta ulertu ez dudan zertxobait:  
aharrausi pila.

*F. Brines, El rumor del tiempo,  
Mondadori, 1989.  
Itzulpena: Jon Iriberry*

**ITURRIOTZ taberna**

**GIRORIK**

**JATORRENA !!**

Tfnoa:79 16 04



**TITARE**

LENTZERIA FINA

Olarte kalea 8,  
ARRASATE



■ **Joselu anaien Mexiko lindo:** Garai batean, *Ez dok Amairu* agertu aurretik batez ere, puri purian egon ziren mexikanadak gure artean. Ez dakit arrakasta horren zergatia. Akaso gaztelaniaz abesteko prest bai, baina ez Madrilgo komunikabide ofizialek saldu nahi zizkiguten sasi flamenkoa onartzen ez genuelako, ez dakit, asuntua da Jorge Negrete eta halakoak idolo bihurtu zirela gure artean.

Geroago Euskal Kanta Berria etorri zitzaigun eta rantxerak izkutatuta egon ziren apur batez. Segura eta Arrate irratieta, berriz, beti izan dute lekua.

Egun hauetan behin eta berriro entzuten ari naiz *Joselu Anaiak* arabar taldearen musika mexikarra, baina euskaraz. Izan nuen lehenengo erreakzioa irribarrearena izan zen, bitxia egin bait zitzaidan. Orain, entzunaren poderioz apika, etxeagoak egiten zaizkit.

Segura Irratia ez dut normalean hartzen, baina Arratekoak pozik egongo direla suposatzen dut disko berri honen agerpenarekin, eta baita, nola ez, rantxerak hain maiteak izan dituzte euskaldun asko eta asko.


■ **Estadio aldakorrak:** Ameriketako nengoela, atentzioa eman zidan hiri handietako kirol estadioak zein ondo aprobetxatzen ziren. Vancouverren esaterako, eraiki zen estadio estali zoragarri hartan -60.000 pertsonarentzako edukierarekin- futbol amerikarra, beisbola, futbol europarra, triala, kamioi lasterketak, batzarre politikoak, musika kontzertuak...eta zer ez zen han egiten. Asteaz bospasei egunetan edo, estadioa okupatuta egoten zen.

Horrek esan nahi dubai hiriarentzat zein jabeentzat ikaragarri errentagarriak direla estadioak. Igandean beste adibide bat ikusi nuen telebistan. Californiako Anaheim hiriko estadioan Super Cross lasterketa benetan ikusgarriak jokatu ziren. Normalean, ordea, beisbola, rodeoak, etab. ikus daitezke bertan.

Guk Atxabalpe, Atotxa edo Santimaniñekoak bezalako futbol zelaia egiten ditugu, futbolekin bakarrik egiteko, zorte handiz astero, eta normalean hamabostean behin. Futbol zelai hauetan nekez egin ahal izango da besterik, baina haiek belar artifiziala darabilten bitartean, zein harro gauden gu belar berdez, ezta? Ez da harrizkoa, ez, amerikarrek guri kontinente zaharrekoak deitzea.

Joxe Aranzabal

## bideoak



### Gaia eta bariazioak

Asiako hegoekialdeko oiha-netako tupaia izeneko ileدون animalia txikiak, zientzilarien interesa erakarri du, ugaztunak nola sortu ote diren erakusten du eta. Horren gai orijinaletik bariazio asko garatu da, hala nola hartz inurrijaleak, satorrak, saguzarrak, baleak eta izurdeak.

Guzti hau, "*Bizia Lurrean*" seriearen 10. kapituluana.

## OSTADAR IRRATIA

(102 F.M)

### Ostirala

3,30 eta 8,30 Errota-zahar (Ipuinak)  
4 eta 8,30 Batutakin (Musika klasikoa)

### Azteazkena

4 eta 8 Xiru-liru-li (Haur kantak)

### Osteguna

1 eta 8 Irratia-gelan (Gelako grabaketak).



## gusto baduzu

■ **Musika idazu eskuetan odola:** ostiralean, 9etan, Norman Foster-ek zuzendutako filmea. Antzesleak, Joan Fontaine, Burt Lancaster, eta Robert Newton.

Bill gizon gogorra da; bere bizitza krudelak lege bakarra erabiltzera eramaten du: delittoa. Gizon bat hil eta gero, Jane izeneko emakume gazte eta atseginaren etxean ezkutatuko da.


■ **Aztia:** Sidney Lumeten ardura-pean, Michael Jackson eta Dianne Ross bezalako artistak aurkituko ditugu, "*El mago de Oz*" filme ezagunaren bertsio honetan. Igandean, 3,15etan.

■ **Berebiziko kemena:** Ted Kottcheffen pelikula, asteazken gaue-rako. Jason Rhodes koronela gizon etsitua da. Duela hamar urte bere semea Vietnamen desagertu zen, eta ordutik bere bizitza amets gaizto bilakatu da. Egoera berdinean dagoen Hugh Mac Gregor gizon boteretsuarekin elkartu, eta ikerketari ekingo diote.





**B**istan dago Txoriak Dragoitxoa maite duela. "Hemen eta Munduan" saioan herri telebistei buruzko erreportaia agertu aurretik, berriro izan dugu hemen ETBkoen bisita. Joan den ostegunean *Maite Zubikarai* eta bere mutilak etorri ziren *Gaur Egun* eta *Teleberri* albistegietarako ATBri buruzko erreportaiatxoa egitera. Eman ere asteburuan eman zuten.




BLA, BLA, BLA

BLA BLA BLA

**H**orrela ikusi dute Koldo Rodriguez gure esataria S.Viatorreko ikasleek, atera berri duten Zer?! aldizkarian. Guapo, ezta?

**G**ogoratzen dituzue *Zaldi erratu hatsa* eta bestelako diskoetan -hiru denetara- azaltzen ziren abestiekin? Madriletik etorri berria zen *Iñaki Eizmendi* eta *Deustuan* ari zen *Bernardo Atxaga*, *Ruper* eta *halakoekin*. Geroztik ETBn ere egon zen eta orain *Pausoka S.A* enpresan egiten du lan, telebistarako programak ekoizten. Guri ez digu abestu, baina lagun izan dugu ATBren sorreratik, aholku eta laguntza baliosak emanez.



aste ko

**PROGRAMAZIOA**

**ASTELEHENA**

- 8.00 Berriak
- 8.15 Mondrasport
- 8.50 Institutuko ikasleen modelo desfilearen laburpena

**ASTEAZKENA**

- 8.00 Berriak
- 8.15 *Zenbat buru, hainbat aburu* (Mahaingurua). Gaia: *Eguraldia*  
Gonbidatuak: *Esteban Etxabe*, *Joxe Araboalaza "Oxiña"*, *Pello Zabela* eta *Rafa Bolinaga*.

**OSTIRALA**

- 8.00 Berriak
- 8.15 *Erretratoa*. (Elkarrizketa): *Inaxio Kortabarria*
- 8.55 Musikantoi

**ENARA**  
OSAGIRRIAK

Maalako Errabala 21,  
20500 Arrasate  
Tfnoa: 79 62 32



**Iosu**

argazki denda

Argazkilaritzarako materiala.

Erreportaiak.

Ikastaroak

Olarte kalea 11, Tfnoa: 79 82 60





**ARIES**  
Martxoaren 21etik  
Apirilaren 20ra

Energiak gainezka daukazun arren, ez datoz bat zure egoera fisikoarekin. Lan fisikoak ebitatu Aries, jota sentituiko zara bestela eta.



**LEO**  
Uztailaren 23tik  
Abuztuaren 23ra

Ustekabeko amodioa suertatuko zaizu, oso erromantikoa izango dena, baina ez iraunkorra. Lan arloari dagokionez, ate asko irekiko dizkizute.



**SAGITARIUS**  
Azaroaren 23tik  
Abenduaren 21era

Burura etortzen zaizun guziaren jabe izan nahi duzu, eta une honetan ezin duzu. Ez izan hain zekena, dena nahi izateak dena galtzera bidera zaitzake eta.



**TAURUS**  
Apirilaren 21etik  
Maiatzaren 20ra

Demasako baikortasunez ari zara jokatzeko Tauro. Burutik pasatzen zaizkizun ideia guztiak garatu, aurrerabiderako bidea zabalduko dizute eta.



**VIRGO**  
Abuztuaren 24etik  
Irailaren 23ra

Lanerako aukera bikainak datoz Virgo. Garbi ikustarazi zertarako zaren gai, baina, batez ere komunikaziorako irekia egon.




**CAPRICORN**  
Abenduaren 22tik  
Urtarrilaren 20ra

Alaitasuna nagusituko da zure inguruan. Amonia nabarituiko duzu bai etxean bai lanean. Gozatu dirauen bitartean, honelako egoerak ez dira askotan tokatzen eta.



**GEMINI**  
Maiatzaren 21etik  
Ekainaren 20ra

Bidaia, komunikazioa eta prestaketa espezializatua eraginkorrak izan daitezkeen momentua oraingoa, ezusteko aukerak suertatuko zaizkizu. Ez hartu erabakirik 19a baino lehen.



**LIBRA**  
Irailaren 24etik  
Urriaren 23ra

Ustez xamangarriak baina izatez arduragabeak diren gizabanakoengan jarriko dituzu begiak. Kontuz! Ekintzei egiezu so eta ez berbei, edota entzuten duzunari.



**AQUARIUS**  
Urtarrilaren 21etik  
Otsailaren 19ra

Hartzera zoazen erabaketan oztoporik jarriko dizun jendearekin inguru duzu topo. Entzun haien esanak, baina, zuzen zabalzala ziur baldin badakizu, zeureari eutsi.




**CANCER**  
Ekainaren 22tik  
Uztailaren 22ra

Ziurtasun osoz betetzen duzu eskuartera datorbizuna; ondo sentiarazten zaitu honek. Finantza arloan eragiketarik burutzekotan, oraintxe zaude egoera onean. Ausartu, etekinik aterako duzu eta.



**SCORPIO**  
Urriaren 24etik  
Azaroaren 22ra

Gogo onez eta zintzo ari zara jokatzeko arazo horretan, ez etsi, ezezagunen batek luzatuko dizun laguntzari esker urak bere bidea hartuko bait du.



**PISCIS**  
Otsailaren 20tik  
Martxoaren 20ra

Lanari ematen diozu beti lehentasuna; ez ahaztu lana produktiboa baino ez dela eta bizitzan badirela maitasuna, familia, etab. ere; egiezu jaramon pixka bat, lasaia sentituko zara.

# LAGUNDU EUSKALDUNTZEN!



Kanpaina honetan parte hartuz, euskara ikasten lagunduko diozu pertsona bati eta, gainera, Eusko Jaurlaritzak 50.000 pezeta emango dizu ordainez.

Informazio gehiago nahi baduzu, dei Udaletxera (Euskara Zerbitzua)

**HARTU ZURE ETXEAN  
EUSKARA IKASLE BAT!**

Udaleko Euskara  
Batzordea



**ARRASATEKO,  
ESKOLA PUBLIKOETAKO  
MATRIKULA-EPEA IREKI DA  
AZKEN EGUNAK**

**HEZKUNTZA EREDUAK:**

• **D EREDUA:**

*IKASKETA GUZTIAK EUSKARA HUTSEAN*

• **B. EREDUA:**

*HEZKUNTZA ELEBIDUNA*

Hezkuntza partehartzailea, zientifikoa,  
sortzailea, integrala, euskalduna,  
arrasatearra,  
eta DOAN.

Informazioa osatu nahi baduzu, ikastorduetan eskolara etor  
zaitezke, dei ezazu telefonoz:

ERGUIN .....79 77 74  
S. ANDRES .....79 00 44  
FERIXALEKUA .....79 05 53  
MUSAKOLA.....79 04 49






Kondekua

Roberto Mendi

Opel Kadett



ONA BAINO  
HOBEA

Autogintza esperientzia handia duena bakarrik has daiteke 1988an gehien saldu zen autoa hobetu nahian. Horixe egin du OPELeK, eta hona emaitza: OPEL KADETT berria.

Zatoz ikustera Opel kontzesionari Ofizialetara.

Zain daukazu.

BERRIA



Zain gauzkazu

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)  
Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86  
DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARA Irako kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala URRETXUn

TALLERES ALTAMIRA

Iparagirre. Tfnoa: 72 33 71

Kontzesionari ofizialak

OPEL   
Hobeak esperietziagatik